

Baztan

Aurkibidea

Udalerria: Baztan

Sarrera



Elizondo da Baztango erdigunea eta herri nagusia, baina hamasei herrik osatzen dute udalerria. Hizkera aldetik batasun handia dago udalerri osoan eta lapurtarraren ukitu nabarmenak dituen euskara mintzatzen da, mendeetan zehar Iparraldeko mugakideekin hartu-eman estua izan baitu ibarrak. Argazkian haranaren ikuspegia Zigaurretik ([wikipedia](#)).

- **Biztanleak:** 8.125
- **Euskaldunak:** %77,2

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **34**
- Zintak: **37**
- Pasarteak: **169**
- Transkribatutakoak: **14**
- Audioak: **3**
- Bideoak: **131**

Proiektuak

- Agustin Mendizabalen fondoak
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- Euskararen biziberritzea Bortzirietan 1970-1990
- Fondo partikularrak
- Gazte gara gazte
- Lekarozko institutuko kantagintzako ikasleak
- Rudolf Trebitsch-en euskal grabazioak (1913)
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Mariano -

Baztandarra. Antzinako ohiturez hitz egiten du. Elkarriketa egin zitzaionean 73 urte zituen.



Itziar Aleman Irungarai (1976)

Amaiurren sortu zen, baina Gartzainen bizi da. Arkitektoa.

Juanito Aleman Maskotena (1934)

Arizkunen jaio eta Amaiurren bizi. Jatetxe batean lan egin. [Itziar](#) alabak kanta bana jaso zien [Felix Irungarai](#) emazteari eta biei, eta Lekarozko institutuko kantagintzako ikasleen bitartez jaso dugu grabazioa.

Pedro Apeztegia (1877)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Kapilaua zen eta 36 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: hegoaldeko goi-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.245 eta 2.246



Harritxu Arrijuria Jaimerena (1984)

Elizondokoa. Dendan egiten zuen lana utzi eta zapatagintzari ekin zion. Erabaki horren inguruko azalpenak ematen ditu.



Maria Pilar Cia Gaztelu (1938)

Baztango Aniz herrikoa. Kontrabandoari buruz aritu zen hizketan gehienbat, [Tomas anaia](#)rekin batera egindako elkarrizketan.



Tomas Cia Gaztelu (1933)

Baztango Aniz herrikoa. Kontrabandoari buruz aritu zen hizketan gehienbat, [Maria Pilar arreba](#)rekin batera egindako elkarrizketan.



Jose Mari Coscarart Iparrea (1957)

Azkarbea baserrikoa, sei senidetan bosgarrena. Aita bertakoa zuten (aitatxi Ameriketara egon zen, artzain) eta ama Arizkungoa. Jose Mari Azpilikueta eskolan ibili zen 14 urtera arte. 16 urterekin Dantzarinean hasi zen lanean, udan, dendan saltzen. Bost senide joan ziren Ameriketara. Jose Mari 1975ean Elyra (Nevada) joan zen, artzain. Bi urteren buruan, berriz, Bakersfieldera (Kalifornia): baratzeko lanean hasi zen eta gero Chateau Basque jatetxeko kantinan egin zuen lana. Hura saldu zutenean, Wool Growers jatetxera joan zen eta 33 urte daramatza kantinero bertan. Lukainak (txorizoak) eta tripotak (odolkiak) egiten ditu jatetxerako. Bakersfieldeko euskal klubekoa ere bada. Sharron Anderson amerikarrarekin ezkondu zen eta seme bat dute.

Amaia Elizagoien Varela *Ameli* (1994)



Baztandarra: 2-3 urte zituenetik familia Oronozen bizi izan da. Ipuin-kontalari da Amaia, eta Ameli du izen artistikoa. Bertsolaria ere bada: umetatik hasi zen bertso-eskolan, Donezteben, Estitxu Arozenarekin. Gero aitarekin entrenatzen zuen (Bittor Elizagoien bertsolaria), eta hainbat bertso-txapelketatan hartu du parte. Haur Hezkuntza ikasi zuen Bergaran, eta garai horretan ezagutu zuen ipuin-kontalaritzaren mundua. Ondoren Gasteizen ikasi zuen Haur Hezkuntza, EHU. Kazetari lanetan ere ibiltzen da, Xaloa telebistan. Ipuingintzari eta ipuin kontalaritzari buruz egindako elkarrizketa. Irati Celestino musikariarekin egiten du lana ipuin kontalaritzan; ikus [Ameli: ipuinen jostune](#) webgunea.

Mariasun Elizalde Elizalde (1953)



Ezkonduz geroztik, Maria A. Arriada. Gurasoak Amaiurren sortuak ziren eta Arizkunera joan ziren bizitzera. Aita txistulari famatua zen: Mauricio Elizalde. Sei senidetan hirugarrena, Arizkongo eskolan ibili zen eta 11 urterekin Frantziara joan zen moja ikastetxe batera, frantsesa ikastera; Zaragozan beste bi urte egin zituen, moja horiekin. 16 urterekin Elizondoko Baztan hotelean aritu zen, gelak garbitzen, eta ia hamar urte eman zituen hoteleko familiaren haurrak zaintzen: Elizondon, Valladoliden eta Madrilén. Jesus Arriada (Ameriketan bizi zen, artzain joana, eta bisitan zegoen Arizkunén; bertsolaria zen) ezagutu eta karta bidez aritu ostean, ezkondu eta Ameriketara joan ziren bizitzera. Alaba bat izan zuten, Arantxa. Mariasunek San Franciscoko euskal etxea garbitzen egin du lana 33 urtean.

Maria Juakina Eraso Habants (1937)



Baztango Berroetakoa. Lehengo bizimoduaren eta ohituren inguruan hitz egin zuen Lekarozko institutuko ikasleek egindako elkarrizketan. [Juanito Maritorena](#) senarrari ere egin zioten elkarrizketa proiektu bererako.

Isabelle Etcheverry Elizalde (1935)



Ezkonduz geroztik Laxague. Elizondoan jaioa, Arginena etxean; ama bertakoa zuen eta aita Iparraldekoa (Lasakoa; Ameriketara ibilia, bueltan ezin izan zuen etxera joan, soldadu eramango zutelako bestela, eta mugaren bestaldean geratu zen bizitzeko). Behitegia zuten eta tabakoa ere egiten zuten. Sei senidetan bosgarrena, Isabellek 12 urte zituenean aita hil zitzaion. Elizondoko moja ikastetxean ikasi zuen 14 urtera arte eta gero sastre batentzat hasi zen josten. Kontrabandoan ere aritzen zen. Elbeteko Berekotxea jabetxean zerbitzari ibiltzen zen eta udana Getariara (Lapurdi) joaten zen hotel batean zerbitzera; hango lankide baten bitartez Xan Laxague aldudetarra ezagutu zuen, Ameriketara bizi zena. Ezkondu eta San Franciscora (Kalifornia) joan ziren bizitzera. Besteak beste, familia frantses batentzat lanean aritu zen. Hiru seme-alaba izan zituzten eta euskara ikasi zuten hirurek. Euskal Etxearen sorreran parte hartu zuten eta abesbatzako kidea da.

Karmen Etxeberria (1936)



Lekarozko Orabidea auzokoa. 6-7 urterekin hasi zen eskolan. Gurasoek ez omen zekiten gaztelaniaz eta berak ere eskolan ikasi zuen gaztelaniaz. Elkarrizketan Joxe Anjel Elizaldekin eskusoinua jotzen du eta Karmenek abestu.

Frank Etxeberria Jaurena (1942)



Francisco du jaiotza-izena eta mutikotik Pantxito ere deitzen zioten (Ameriketara, berriz, Frank da). Erratzun sortua, aita bertakoa zuen eta ama Arizkungoa. Bost senidetan zaharrena, 12 urtera arte Erratzuko eskolan ibili zen. Aita larrugintzan eta zapatagintzan aritzen zen eta berak lagundu egiten zion. Denbora librean pilotan aritzen zen. Kontrabandoan ere bai pixka bat. 17 urterekin Ameriketara joan zen artzain, Johnny Merielen ardi-konpainiara. Chino eta Bakersfield inguruan sei urte egin zituen artzain eta "campero". Emakume amerikar batekin ezkondu zen eta lau alaba izan zituzten. San Jacinton bizi izan ziren 16 urtean; esnetegi batean egiten zuen lana, behiak jeitzen. Gero kamioi gidabaimena eskuratu eta kamioiarekin hasi zen lanean. Emaztea hil ondotik, bigarren ezkondu, eta beste bi alaba izan zituzten. Kamioi eta autobus negozioa ipini zuen: Etxe Truking konpainia. Baratzuria, mahaspasak, laranjak, limoiak, irina... negozio asko izan ditu Frankek. Euskal klub batean baino gehiagotako kide izan da (Bakersfield, Los Baños eta Fresno).

Manuel Gamio Goñi (1949)

Iruritako Bordan jaioa. Gurasoak bertakoak zituen. Zazpi senide dira. Lau anaiak Californiara joan ziren artzain. Manuelek arrantxoan jardun du lanean batez ere. Ameriketara geratu zen bizitzeko. Hango ibilerak kontatu zizkigun.

BAZ-006 Hizlari ezezaguna

Martin Inda Aroztegi (1918)

Almandoz (Baztan) jaioa, Mendiola auzoan. Gurasoak ere Almandozkoak zituen.

Zipriano Irigoien Dualde (1922)



Erratzuko Araneko Erreka auzuneko Etxegarai Beitikoa baserrian jaio zen. Aita bertakoa zen eta ama herri bereko Mamuts baserrikoa. Bederatzi anai-arreba izan ziren. Erratzuko eskolan urte pare batez ikasi ondoren, Gironako Canet de Mar-eko "Misioneros del Sagrado Corazón" ikastetxera bidali zuten hamaika urte zituela. Gerra denboran ikastetxeko fraide guztiak hil zituzten, eta ikasleak Bartzelonako "Asilo Durán"era bidali. Handik, Frantziatik bueltan, Iruñera ekarri zituzten ikasle nafarrak eta handik etxera. Erratzun artzain eta morroi lanetan urte batzuk egin eta gero, soldadu joan zen. Euskal Herriko herri askotan militarrentzako kanpamentu-aurrefabrikatuak eraikitzen jardun zuen. Gerraostean estraperloan ere ibili zen eta 36 urterekin Arrasatera joan zen Zerrajeran zamalanetan jardutera. Makinista zela hartu zuen erretiroa bertan. Ermoxo izeneko kale-baserriko (gaur galduta) Concepción Arrizabaletarekin ezkondu zen eta hiru seme-alaba izan zituzten. Baztango euskara eta Arrasatekoa nahasten ditu.

Martin Irigoien Rekarte (1941)



Elizetxekoa, guraso biak Erratzukoak zituen, baserritarrak. Amak denda txiki bat zuen eta telefono publikoa; kanporako josten zuen; aita taxista ibilia zen, baina gazterik hil zen, biriketako gaitzarekin. Bost senidetan hirugarrena zen Martin. Bi anai zaharrenak Txilera joan ziren eta arreba bat Iruñera lanera. Arizkunen ibili zen eskolan, izebaren etxean bizi izan zelako. 12 urtetik aurrera morroi ibili zen batean eta bestean. 1960an Bakersfieldera (Kalifornia) joan zen artzain, Mendibururen ardi-konpainiara. Hiru urteko kontratua amaituta ere konpainia berean jarraitu zuen lanean, baina Fresno, arrantxoko lanetan. San Jacinton ere bizi izan ze; 23 urtean esnetegi batean egin zuen lana. Lehenbiziko emaztea lowakoa zen; hiru seme-alaba izan zituzten elkarrekin. 1988an Fresnoa joan ziren bizitzera eta arrantxoko lanean aritu zen han. 1994an zahar egoitza batean hasi zen lanean, mantenimenduan, eta baita haurren ospitala garbitzen ere. Lehen emaztea hil ondotik bigarrenez ezkondu zen, zahar egoitzan lana egiten zuen emakume amerikar batekin. Fresno Santa Fe euskal jatetxean egin genion elkarriketa. Kinsburgen bizi da azken 35 urtean.

Felixa Irungarai Inda (1944)

Amaiurren jaio zen eta bertan bizi izan da beti. Jatetxe batean lan egin. [Itziar](#) alabak kanta bana jaso zien [Juanito Aleman](#) senarrari eta biei, eta Lekarozko institutuko kantagintzako ikasleen bitartez jaso dugu grabazioa.

Maravillas Iturralde Etxarte (1930)



Berroeta herrian jaio zen. Gurasoak ere bertakoak zituen, nekazariak. Sei senide izan ziren, bera zaharrena. Ezkondu zenean Bizkaiko Sopelara joan zen bizi izatera.

Jabier Larralde Ustariz (1927)



Arizkunen sortu zen Enekonea izeneko etxean. Aita mugaz bestalde jaio bazen ere, Baztan inguruan ibili izan zen txikitatik artzain lanetan. Ama, berriz, Arizkungoa bertakoa zuen. Bizi izan ziren etxean maizter izan ziren beren denbora guztian eta soldadu joateko garaia heldu zitzaionean, gurasoak ere hil berriak izaki, arazo fisikoak zituela argudiatuz joan gabe libratu zen. Kaliforniara joan zen orduan artzain eta han pasa zituen 5 urte inguru bakardadean. Etorri eta urte batzuetara ezkondu eta Donostian taberna ireki zuten senar-emazteek elkarrekin. Handik Arizkunera itzuli eta Fonda hartu zuten jateko eta lotarako zerbitzua eskainiz. Txikitatik jasotako musikarako afizioak dantza munduan murgildu zuen eta herriko gazteei dantzak ikasten laguntzen ibili izan da azken urteetan ere Jabier txistuaren laguntzarekin.

Rafael Lizasoain Adansa (1946)

Pitostenea etxean jaioa. Ama Arraiozkoa zuen eta aita Elizondokoa. Aita zurgina zuen, eta txerri hiltzen ere ibiltzen zen baserriz baserri. Hamabi senidetan bosgarrena. 12 urte arte ibili zen eskolan. 17 urterekin basora joan zen lanera, Frantziara, eta 18rekin Ameriketara artzain, Kaliforniara. Lau urte egin zituen artzain moduan, eta gero New Yorkera joan zen. Hainbat lanetan ibili zen han, besteak beste, Kennedy aireportuan lanean. San Franciscoko aireportura aldatu zen gero. Bederatzi urte egin zituen Ameriketara, eta Elizondora bueltatu zen. Zurgindegia jarri zuen anaiarekin eta lagun batekin. Elizondon bertan ezkondu, eta familia osatu zuen.

Maitane Maritorena Azkarate (1982)



Maitane Maritorena, aniztarra (Baztan), irakaslea eta mutil-dantzaria da. Euskal Filologiako ikasi zuen lehenengo, eta Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren gradu ondokoa, gero. Baztango Udaleko Euskara eta Kulturako zinegotzia izan zen 2011tik-2015era eta (H)ilbeltza euskal nobela beltzaren asteko antolatzaileetako bat da. Mutil dantzetan berdintasunaren alde lan egiten du eta Erran.eus-en idazten du. 2021ean, "Aniz, 11 etxe, 11 labe, 22 zetabe, bat bertzearen behartu gabe" liburua argitaratu zuen.

Juanito Maritorena Gaztelu (1935)



Baztango Berroetakoa. Lehengo bizimoduaren eta ohituren inguruan hitz egin zuen Lekarozko institutuko ikasleek egindako elkarrizketan. [Maria Juakina Eraso](#) emazteari ere egin zioten elkarrizketa proiektu bererako.



Ixa Ordoñez Iratzoki (1952)

Pedro Salaburu Arrijuria (1942)

Elizondon jaioa, mendiko borda batean; ama bertakoa zuen eta aita Gartzaingoa. Bost senidetan zaharrena, 7 urterekin hasi zen eskolan; urtebete egin zuen Elizondon eta gero Elbeten ibili zen 12 urtera arte. Ondoren morroi joan zen Aldudeko baserri batera; zortzi urtean egon zen han.



Basoko lanetan ibili zen ondotik, 1965ean Ameriketara joan zen arte: Bakersfieldera, Kalifornia. Artzain egin zituen lau urte eta "campero" beste bat, Mendiburu ardi-nagusiarekin. Gero San Franciscora joan zen lanera, Aldudeko familia batentzat lorezaintzan aritzera. Hiru urteren buruan bere kontura hasi zen lorezain. Euskal Herrira bisitan joan zen batean Karmen ezagutu zuen, Arizkungoa; 3 urtetan izan ziren nobioak, baina distantziara elkarriz gutunak idazten, eta gero ezkondu eta Ameriketara joan ziren bizitzera. Alaba bat eta seme bat izan zituzten. 1982an San Franziscoko euskal etxearen sorreran parte hartu zuten.

Anastasio Sarratea Oieregi (1941)



Guraso biak Almandozekoak zituen, Mendiola auzokoak. Eltxonea baserrian bizi ziren. Ardiak eta behiak zituzten eta gazta egiten zuten, saltzeko. Hamar senidetan seigarrena zen Fulgencio; mutikotatik hasi zen artzain. 14 urtera arte eskolan ibili zen, baina gutxi joaten ziren, baserrian lana izaten zutelako. Bere anaia zaharragoak Ameriketara joan ziren artzain eta bide bera jarraitu zuen berak ere: 1961ean Nevadara joan zen, Gardnervillera. Bost urte egin zituen artzain eta bost esnetegi batean lanean. Gero, Renora joan zen eta geroztik bertan bizi da: eraikuntzan aritu zen lehenengo eta lorezaintzan gero. Amerikar batekin ezkondu zen (haren aita Ameriketara sortu zen, baina euskaraz bazekien, gurasoak Iparraldekoak zituelako) eta hiru seme-alaba izan zituzten; 14 urteren buruan banandu egin ziren (Anastasiok gero beste bikotekide bat izan du, 34 urtean: Jane). Renoko euskal klubeko kidea da eta mus txapelketetan hartzen du parte. Fulgencio anaia ere elkarriketatu genuen, Renon (elkarriketa egin genienean lau anaia bizi ziren Ameriketara; guztira zazpi joan ziren).

Fulgencio Sarratea Oieregi *Florens* (1947)



Guraso biak Almandozekoak zituen, Mendiola auzokoak. Eltxonea baserrian bizi ziren. Ardiak eta behiak zituzten eta gazta egiten zuten, saltzeko. Hamar senidetan bederatzigarrena zen Fulgencio. 12 urtera arte eskolan ibili zen, baina gutxi joaten ziren, baserrian lana izaten zutelako. 14 urte zituenean Iragira (Nafarroa) joan ziren bizitzera. Bere anaia zaharragoak Ameriketara joan ziren artzain eta bide bera jarraitu zuen berak ere: 1963an Californiara joan zen, Los Banos herrira. Bost urte egin zituen Californian eta bi Nevadan, artzain, bi konpainia desberdinetan. Urtebete egin zuen Chinon; gero, Renora joan zen eta geroztik bertan bizi da: eraikuntzan aritu zen lehenengo eta lorezaintzan gero (Spanish Gardening izeneko negozioa sortu zuen: 3-4 langile zituen). Amerikar batekin ezkondu zen (aitona Galiziakoa zuena) eta bi seme izan zituzten. Renoko euskal klubeko kidea da eta mus txapelketetan hartzen du parte. Anastasio anaia ere elkarriketatu genuen, Renon (elkarriketa egin genienean lau anaia bizi ziren Ameriketara; guztira zazpi joan ziren).

Ignacio Sarratea Oieregi (1943)

Guraso biak Almandozekoak zituen, Mendiola auzokoak. Eltxonea baserrian bizi ziren. Ardiak eta behiak zituzten eta gazta egiten zuten, saltzeko. Hamar senidetan zazpigarrena zen Ignacio. 14 urtera arte eskolan ibili zen, baina gutxi joaten ziren, baserrian lana izaten zutelako. Basoko lanetan ere ibili zen. Bere anaia zaharragoak Ameriketara joan ziren artzain eta bide bera jarraitu zuen berak ere: 1964an Nevadara joan zen, Gardnervillera. Bost urte egin zituen artzain Borda anaientzat, Daytonen, eta gero Andy Aldaxentzat egin zuen lana, esne-behitegi batean. Gardervillen Gardening negozioa ipini zuen ondoren, bere kontura, eta hori izan du bizibide nagusia. 1995ean Gayle izeneko emakume amerikar batekin ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten; handik urte batzuetara bigarren aldiz ezkondu zen. Gardervilleko euskal klubean sukaldari aritu da urte askoan eta musean jokatzeari gustatzen zaio. Beste hiru anaia ere elkarriketatu genituen, Renon eta Gardnervillen.



Pedro Sarratea Oieregi (1945)

Guraso biak Almandozekoak zituen, Mendiola auzokoak. Eltxonea baserrian bizi ziren. Ardiak eta behiak zituzten eta gazta egiten zuten, saltzeko. Hamar senidetan zortzigarrena zen Pedro. 14 urtera arte eskolan ibili zen, baina gutxi joaten ziren, baserrian lana izaten zutelako. Bere anaia zaharragoak Ameriketara joan ziren artzain eta bide bera jarraitu zuen berak ere: 1964an Nevadara joan zen, Gardnervillera. Lau urte egin zituen artzain Jean Zubibururentzat Carson Valley eta urtebete Manuel Brenduarentzat, Fresnon (California). Gero, ardotegei batean aritu zen Maderan eta baita mercurio-mina batean ere, Fresnotik hurbil. 1971n Carson Cityra bueltatu zen (Nevada), esnetegi batean lana egitera. Eraikuntzan aritu zen gero, Eugenio anairekin, Renon, hiru urtean. Katie Neddenviep amerikarrarekin ezkondu zen, Gardnervillen, eta bi alaba izan zituzten. 1979an lorezaintza-negozioa ipini zuen eta lan hura eskola bat garbitzearekin batera ere egin zuen, aldi batez. Beste hiru anaia ere elkarriketatu genituen, Renon eta Gardnervillen.



Julia Urrutia (1935)



Tadeo Viela (1873)

1913. urtean Rudolf Trebitsch etnografo austriarrak jasotako grabaketa. Merkataria zen eta 40 urte zituen grabaketa egin zitzaionean. Euskalkia: iparraldeko goi-nafarrera.

- Diskoaren erreferentzia: 2.247

Miguel Zubieta Arratxea (1920)

Sortzez Zigakoa (Baztan). Urte gehienak Amaiurren bizi izan zen eta azken urteetan Arraiozen. Elkarriketatzailer bere biloba da.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Bestelako kontuak

1.1. Xabierko Frantziskoren haurtzaroa

- **Hizlaria(k)**: Larralde Ustariz, Jabier
- **Elkarriketatzailer(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: BAZ-003/002
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:00:38. **Bukatu**: 00:02:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Bestelako kontuak » Historia orokorra
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Xabierko Frantzisko santuaz. Ama baztandarra zuen, Azpilikuetakoa, eta aita Nafarroa Beherekoa, Jatsukoa. Baztanen sortu zen ziur asko. Anaia Amaiurko gaztelua defendatzen ibili zen. Frantzisko oso gaztea zen artean. Gero Parisera joan zen ikastera.

Transkripzioa

-Hemengo saindue ere hala dugu, Frantzisko Javier.

-Arizkungoa?

-Ez, hori zen... emaztea zauken San Frantziskoin amak Azpilikuetakoa, hamentxe dago herri ttiki bat, Azpilikueta, eta ama horkoa zen eta aita San Frantsiskoina zen Iparraldean, ia kasik bertan, lutsu (Jatsu), nik uste den herrie.

-Ordun iparraldekoa, lutsukoa, aita?

-Aita zen hangoa, San Frantziskoin aita zien hangoa, eta gero ama Azpilikuetakoa, bai. Eta gero ez dakit zerbait ere kargu bat zauken iparraldeko harek eta hemengo agintariekin nolabait ere beti... azkenik horko gazteluen jabe egin ziren. Eta, bueno, gero badakit San Frantzisko ere han sortua izango dela seguraski ere. Eta hori ere garbi dakitena da San Frantziskok euskara ere eiten omen zuela, eta nola joan zen Paris aldera. Bertze anaiek, berriz, aitzen [ahal] ziren hemen gerlan, Amaiurren agitu zen gerra batean; eta, bueno, San Frantzisko zen gazteena eta hura...

baiño ez zen gerrarako eta ez zen... eta hura joan zen Parisera ikestera ez dakit zer ere.

2. Ohiturak eta bizimodua

2.1. Soldadutzarako deia gurasoak hil zirenean

- **Hizlaria(k):** Larralde Ustariz, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** BAZ-003/008
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:07:28. **Bukatu:** 00:09:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- **Laburpena:** Ama gaixotu egin zen eta aita adinekoa zuenez, soldadutzatik libratu zen. Baina laster hil zitzaizkion biak, eta soldadutzara deitu zioten. Ez zuen joan nahi eta iparraldera pasatzea pentsatu zuen.

Transkripzioa

Ta gero ama eritu zen, ta bueno, pastu zuen eria franko denbora poliki, eta azkenean, ni nintzen adin hartan soldadu goateko denboran, eta bueno, ama eri zen denboran eta aite ere ya adinean bazalakotz, libratu nitzen soldadugotik. Eta, bueno, libratu nintzen soldadugotik, baino lau urtez nindagon oiño soldadugoaren mendean, zegatik aite ta ama hiltzera heldu baziren, neri soldadu galdeiten zataten berriz, berriro. Ta bueno. Orduen, ze pasatu zen? Biek hil ziren lau urte pasatu baino lehenago. Eta, bueno, orduen soldadu galde in zataten. Ta soldadu ez nuen gan nahi ezta ezerengatik, zegatik bertze soldadu joan behar zutenak baino lau urte zaharragokoa nintzen ni, ta gainera, tokatu zitzaidan Afrikara ere eta buenoz...! Orduen nahi nuen iparraldera eskapatu, ta bueno, iparraldean ere ez genuen lagunik ezagutzen, nahiz ta iparraldean ibiltzen nintzen aunitz, zegatik orduko hasia zen kontrabando puxka bat hasia zen. Ta kontrabandoan orduantxe [sortzen], sos batzuk irabazten genituen.

2.2. Akelar mendian

- **Hizlaria(k):** Apeztegia, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** BAZ-013/001
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:04:18
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Neguko hotzean ni anaik Akelar mendira egindako txangoaren berri ematen digu. Bi anaietako batek min hartu eta arbola baten babespean gaua igarotzen ari direlarik, sorginkeriaz eta magiaz betetako istorioa bizi dute.

Transkripzioa

Neguko aize otza zebillen, denbora ´re triste, zoazin bi anaia Akelar mendi

saetsean, burua apal, barna gose, otzak ikaran. Ai, ura eguraldiya! Mendi kaskoak elurrez, eta mendi azpiak lano zuri batek estaliak zauden. Lañoa! Lañoa! erraten dio Izarrek bere anaiari; egon zeite mantxo, ezin jarraiki naiz zure pausuari; bere anaiak kasoik ez, aitzinat segitzen du; azkenean, ezin bertzez, lana zuri batek bidea estaltzen diolakotz egoten zaio bere anaiari, bañon unen kaltez, deus ezen gatik jotzen, Izar erortzen da lurrera, galtzen du bere anaia, ez daki norat jo duben, alferrik uju egiten dio; galtzen du ere bidea, goibelak denean jarri direlako. Zer egin? Gelditzen da bakarrik, mendi triste illun artan, norat jo ez dakiela. Azkenean ikusten du mila urte zituben arbol aundi baten trunko edo kidar edekia: an sartzen da gaba pasatzeko, eta bereala bere tristura eta pena guzien artean loarkatzen da, loarkatze ezti batean. Baño, o! andik bertzeko iratzarrita zer ikusten du? Mendi kaskoan balego bezala ikusten du zelai-zelaian bere inguruan lanoak edatzen dirala; bereala zer ez dakiela, an, gauza illun batzuek mugitzen direla ikusten du; baño o! geiago arritzen da ikusten duenean eta begiak itze zorrotz bat bezala jartzen zaizko [lau saetsetaik ateratzen dirala lerroz lerro...] atxo zagar akal batzuek, apo zaar, edansube eta sekulako animale itxusietan jarrik daudela, abarroka, deadar oiuka, eta ikaragarritzko kantu itxusiak kantatzen dituztela. Zer gerta? Ortotsa adineko asots batekin jartzen da denen erdian sorgin guziyen erregea, aker aundi baten idurian. Aren inguru asten dira denak kantari, dantza itxusi batean. Gure mutikua arbol ziloan altxatuta ilko zen bertzek ikusi ezbalu; baño o! Jinkoaren graziya. Or ikusten du aingerutxo bat, gazte eder baten idurian, aren ondo-ondoan jarrik dagola; arek pizten dio biyotza. Noizbait gelditzen da sorgin dantza eta asten da akerra kontu eskatzen denei, nork zer egin al duben. Izarrek aitzen ditu denak, eta begira zer erraten due sorgin batek: "Nik uste niork ez duela egin emen nik in dudana; nik badaukat arras gaixo eritasun aundi batekin Prinzesa gaztetxo bat, nik uste, bai, laster ilko dela, eta aren gurasuak penain bortxaz, badakit segur, ez direla biziko, berek ilko dituzte beren buruak. Prinzesaren eritasuna niork ez daki nondik datorren nik baizik, alfer aiko dire medikuak. Antxe dago etxeain inguru arripe batian apo aundi bat; arek ematen dio gaitz guzia; apo begi gorri ura il balezate senda laiteke bereala neska ura, baño al niork ez daki..." Berea[la etorri zen asots aundi bat ortotxa bezala].

2.3. Baztango zikiro beltza

- **Hizlaria(k):** Viela, Tadeo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Trebitsch, Rudolf
- **Erref:** BAZ-014/001
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:14
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak
- **Laburpena:** Baztango istorio honek bi laborari ditu protagonistatzat. Zikiro (ahari) bat tarteko bi baserritarretako bat Iruñeko abokatu batengana doa laguntza bila.

Transkripzioa

Baztandarrak geldiek direla?

Baztanen bada leku ttar bat; ango gizonak naiz diren ttallak dire erniak.

Batek bertzieikin izen zuten bein mokoka bat, eta batek, bereaikin atra

bearrez gan zen Iruñeko abogadu yakinsu batengana. Abogaduak gaidin

zion:

- Zer dakarrazu?

- Ai' Jauna' Nik eztakit. Nere lekuan baut etsai bat izigarri gaixtua; bereak eta nereak nai tuena.

- Nola daiteke oi?

- Nola? Bazuen arek zikiro mutur beltz eder bat, gizona, artzain guziek zautzen zutena.

- Ta zer?

- Nik ere banuen bertze zikiro mutur beltz eder gizona eta gau batez il zitzaiten.

- Ta zer?

- Ezpainuen zikirorik gabe gelditu nai, gau artan berean nere bordatik bizkerrean artuta zikiro ile utzi nion berean eta andik arena bizik karri nuen nere bordara.

- Ta zer?

- Ai jauna! Gizon arek zautu du nere artaldean dabilen zikiroa berea dela, eta Balleko etxera deitu nau.

- Ta zer?

- Ezpaitut zikiroik gabe gelditu nai eta... Nik erran diot obe duela xil-xilik egotia berzenaz Iruñean pleitu bat main diotela, eta ezpaita xiltzen ortara eldu naiz, zuk erran biaizu zikirua nerea dela.

- Nik? Nola? Ez diozu zikirua zautzen dutela? Utzezu Jinkuaz afer oi, galdiko zara.

- Ala da, bañon alare nai dut zuk ertea nerea dela.

- Nola naizu ordia?

- Bai aise kukoizu. Nai nuen yakin zuzen iten tuzuen lanak. Erran badatzut nik lan oi in niola ari, ez da egie, ark in zatan neri.

- Orain aise, baitakizu aren artaldean dabilen zikiroa nerea dela, biaizu [zuzen nerera karri].

2.4. Txirritaren bertsoa

- **Hizlaria(k)**: Irungarai Inda, Felix
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Aleman Irungarai, Itziar
- **Erref**: BAZ-022/002
- **Iraupena**: 0:00:28. **Hasi**: 00:00:08. **Bukatu**: 00:00:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bertsoak
- **Laburpena**: `Txirrita`ren bertso bat abesten du.

Transkripzioa

Berrogeita lau urte diozu
nik hirurogei pasiak
frailen moduan beti mutilzar
gure denbora baziak
gu holakuak geradelakoz
bertze batzubek gosiak
zikiratzia merezi likek
holako krixtau klasiak.

3. Politika

3.1. Gerra ondoan familia guztiak estu bizi ziren

- **Hizlaria(k):** Larralde Ustariz, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** BAZ-003/009
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:09:11. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Ia denak maizterrek zirenez, oso justu bizi ziren familiak. Gerra inguru hartan mandatuak egitera bidaltzen zuten bera. Errazionamendu kartila, txartelak... Etxalde handietako familiak ere nahikoa lan zuten bizitzeko.

Transkripzioa

Baiño ez zagon bizitzeko. Zagon... denak gaizki bizi ginen hemen. Gu maizterrek ginelakotz, eta maizter ttikiek gainera, eta maizter haundiogoak ere, gaizki, eta baita ere etxalde haundietakoak ere, ez ziren soberarik ongi. Zergatik, oroitzen naiz, mixeriarik ez dut ikusi nik etxean, zergatik aitzak ekartzen zuen dirue, kanpoan irabazi eta ekartzen zuen sosa. Orduen, erran dezaket, zerbaiten... suertatu zen, gainera, gerrako denbora hure zela. Nik bederatzi urte eta orduen hasi zen mila bederatzirehun ta hogeita hamaseian gerra. Eta bueno, guri uzten zaguten mandatuak egitera ta botiketara. Eta bueno, orduen zagon gainera, “razionamiento” deitzen zeneko bat, denak neurtuak ematen zuten gauzak, eta halako kartilla bat ere baginuen; han anotatzen zuten ze ematen zuten ta denak. Dirurik ere ez zagon, karton batzuk eginik “vale por tanto” ta hola ziren, [...]. Baiño erran nahi dutena da, gu maizterrek eta pobreak [ere] izateko, gu beti aita ta amak beren diruekin igortzen zakuten botikara patzeko. En kanbio, etxalde haundi hoiek, hoiek ez zuten, hoiek liburuan apuntatzen zuten, ta zertaz? dirurik ez zutelakotz. Saltzen zituztelarik / saltzentzuztelaik/ zerrikumeak —igual, badakizu, zortzi-hamar zerrikume-ta izaten ziren zerri-urde ama batetik— eta hek saltzen zituztelaik, orduen egiten zuten kontue. Edo aratxe bat saldu zutela edo... orduen gaten ziren kontua atera... o sea, erran nahi dut, irudi zutenak jende inderrekoak, etxalde haundietakoak ziela, hek ere nahiko lanekin bizi zirela. Eta bueno...

4. Diaspora

4.1. Kalifornian bost urte artzain

- **Hizlaria(k):** Larralde Ustariz, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** BAZ-003/011
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:14:49. **Bukatu:** 00:16:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoen diasporan
Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak
- **Laburpena:** Ameriketara joatea erabaki zuen. Legean egin zituen paperak. Bost urte egin zituen Kalifornian artzain. Sekula artzain ibili

gabea zen. Gazte aunitz joaten zen orduan, hemen bizimodua oso zail zelako.

Transkripzioa

- Orduen zen hasi nintzena egin behar nuela, Ameriketara joan behar nuela. Eta bueno, orduen in nituen paperak, ta egin zatzaten legalmente. Aintzinean ere ibili nintzen bai Iparraldean barna, bazela pasaporte faltsoak eiten zituen agentzia bat ere bazela, ta bueno, han ere, baina han ez zaguten deus in. Ta bueno, beti ere hola in ginuen. Eta bueno, orduen ein zazkiteten paperak eta goan nintzen Ameriketara, ta han pastu nituen, han Kalifornian, bost urte artzai ardiekin. Hemen ez gintuen ardiek justu-justu ezautzen ginuen zerrien tartean, baiño han ardiekin ibiltzen ginen, han.

- Aitta, zure aitta, ibilia zen zerbait artzai?

- Ez, osaba bat bai... aita...

- Osaba?

- Bai, bai. Baiño goaten zen, gazte aunitz joaten zen orduan. Karo, [aixtian] erran dutena, pues hemen bizimodu txarra zagon. Maixterrak [ale batzuk] nola ginen ta, iduri zutenak indarrekoak zien hoiek ere, hoiek ere ikusten ginuen sosak hartzeko moduen gaizki zebiltzela. Ta, bueno, orduen gazte aunitz joaten zen Kaliforniara. Kalifornian ibili gara. Eta... hantxe giñen ta han pasatu gintuen bortz urte.

4.2. Bakardadea, sufrimendu handia

- **Hizlaria(k)**: Larralde Ustariz, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: BAZ-003/014
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:20:20. **Bukatu**: 00:22:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Bazka ona delarik ondo dabil artzaina, baina badira beste sufrimendu mota batzuk ere, bakardadea horietarik handiena. Inguruko artzain euskaldun batek bere buruaz beste egin zuen. Horretarako izan zituen arrazoiak.

Transkripzioa

- Holaxe pastu ginuen... Halala, hasi[er]an erran dutena, urte batzu onak ere, ardiak bazka baldin baute, ez duzu lanik. Bakarrik beste sufrimentue bada bakardadea. Bakartasune, hoi, hoi ez daiteke sinetsi... ez daiteke sinetsi probatu artio nolakoa den bakarrik egotie, ze pentsamentuek ibiltzen diren. Eta kusten... entzun ere bai, ta aitu in izein dugu: "Bai, holako burutik nahasi dela". Ta bueno! Ez da harritzekoa, nolabait eiten genuen, guk ibiltzen ditugun pentsamentuek... Eta nere ondoan suertatu zen, izein zen milia bat, kilometro t´erdi ingurui, batek bere burue hil zuen eskopetaekin. Eta arrazoina harena errain daitzut zer, zertaz: Hure´re hemen justu-justue bizi eta gan tzan sos batzuk egitera, eta ideia zuen etxea... Herriko etxea zuten, herriko etxean bizi zien, ostatue, herriko ostatue. Eta han bazaukaten animalia... bazauzkaten, ez dakit, 5-6 behi, behi izango zituen, ta bueno, ezkontzeko ta ere diruik ere ez baitzu, ez baitzuen, gan zen Ameriketara, ta handik itzuli eta ezkonduko zala. Eta han norbaitek ere idatzi izan behar zion, zeatik guk solas eiten genuen, tarteka

kusten genuen elkar, nahiz urrun ibiltzen ginen, baina ardiek ez zutelaik lanik, pues elkar ateatzen ginen pixka bat. Eta berak errana zauten nola “bueno, ni etorri naiz sos batzuk egitera, ta gero ezkontzeko idea dut etxera”. Ta, bueno, norbaitek eskribitu zion karta bat bere anaie hasia zela nexka batekin ta ezkontzeko pentsamentuek zituela etxea. Bueno! Orduen, pentsa zazu ze, harendako zer zen hure! Bere buruai tiroa eman zion eta hantxe hilik gelditu zen.

- Gizajoa!

- Bai.

4.3. Pentsamendua Euskal Herrian

- **Hizlaria(k)**: Larralde Ustariz, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Erref**: BAZ-003/015
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:22:42. **Bukatu**: 00:24:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskal Herriarekin harremana
Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldun sentimendua
- **Laburpena**: Batzuetan ondo, beste batzuetan ez hainbeste, baina inoiz ez arras ongi Ameriketan. Pentsamendua Euskal Herrian izaten zuten: lagunak, neskatzak... Ez zen epe jakin baterako joan, nahi beste denbora gera zitekeen legez, hurrengoak ez bezala.

Transkripzioa

- Ta hola, ba horrengatik erran nahi dut beti han pastu, pasatu ginuen aldika ongi, bertze aldika gaizki, baiña, beno, arras ongi behin ere ez. Gero Euskal Herriaz ere oroitzen zara.

- Hori galdetu behar nizun Jabier. Zuk esan duzu ze pentsamendu ibiltzen den hori probatu duenak bakarra dakila. Ta? Pentsamentu hoiek esatea, denak esatea, ezinezkoa izango da, baiña ze pentsatzen zenuen, ba, Euskal Herriaz asko oroitu... ze pentsatzen zenun?

- Lehen lehenbizian hemengo bizia, nahiz erran duten bizia txarra zagola — zeatik ez zen dirurik—, baiña, hala ere, laguntasunek eta gaztetasunek eta lagunek igandeetan ta igual aunitz aldiz igual argi hurbileraino ta ostatueta ta hoiek, hoiek [ezen] ahantziak ziren, lehenbizian. Hori ere sufrimientu bet zen eta, bueno, gero iten gintuen pentsamentuek. Gero gaztek ginen, neskatzak ere [pentsarazten zekituen] hoiek ere, erran behar da dena. Ta, beno, hantxe, serio, bai.

- Ta zuk, hara joan zinenean, bazenekin zenbatsu denbora pasako ziñun han edo...?

- Ez, ez, ez. Ni gana nintzen gainera denbora batean libre zagona, beno, gaten ahal zinen han ta nahi zinuen denbora pasatzen ahal zinuen. Gero, geroxeago handik... uste dut bi urte t´erdin buruan edo hola, ya paratu zuten nazionen artean lege bat, ta orduen hiru urteendako joaten ziren bakarrik. Kontrato bat iten zuten hiru urteendako ta hiru urten buruan behar zuten itzuli. Gu ez, gu... nik nahi balin banuen egoten ahal nintzen hamar urte, hogei edo gelditzen ahal nintzen han. Hoi ginuen diferentzia gu lasterrago ganak ginelakotz.

4.4. Ardiak nola kontatu: beltzak eta zintzarridunak

- **Hizlaria(k):** Larralde Ustariz, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** BAZ-003/017
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:28:14. **Bukatu:** 00:30:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena:** Ardiak markatu egiten ziren, ilea erretzen zitzaien jabearen markarekin. Zintzarria banaka batzuei bakarrik jartzen zitzaien. Ardiak kontatzeko, leku estu bat aprobetxatzen zen eta zintzarridunak eta beltzak kontatuta jakiten zuten.

Transkripzioa

- Eta jabetzarako edo, zure nagusiak edo, ba al zeukan zintzarrik hemen bezela, edo seinalerik, txaparik edo?

- Bueno, ardietan erran nahi duzu?

- Bai.

- Ardietan bai, zeatik ardietan ematen zitzaizkon nagusin bi... bi ta hitz paratzen zitzaizkon, "branda" erraten zitzaion. Ta, bueno, orduen ikusi orduko ardi multzue, nunbait ere, berehala ezagutzen ziren, "a, bai hori horrena da!". Zeatikan suekin erretzen zuten ilea eta iten zuzten bi letra: baldin bazan, Joan, John inglese, ba, jota bat, eta, bueno, bestea baldin bazen... bueno, beste... segun zer zen, harena ere paratzen zuten. Errea ikusten zen, ta orduen gelditzen zen [horrekin] seiñale; urrunera ikusten zinuen norena ziren ardiek. Bai, [hure zen].

- Ta zintzarririk edo joarerikan edo ez?

- Joaredunek bat edo bertze izaten ziren bakarrik. Ta gero hori laguntzen zakun pixka bat ardi multzoek, badakizu, igual leku txar batzuten pasatzen, leku gaixtoetan pasatzen zelaik, "ardiek denak hemen ote ditut nik?". Beno, kontatzen zintuen ardi beltzak, zenbat ziren beltzak, behar zintuen gogoan atxiki eta zenbat goara zien, zenbat gara ziren. Ta, bueno, beltzak eta gariak leku exturen batian kontatzen bazentuen, "bueno, hemen dire denak". Hori zen hango...

- Sistema..

- Bai, bai.

- Nola kontrolatu.

- Nolabait ere behar zen, zeatik kontatu bakarka ez duzu iten. Eta, bueno, beltzak han baziren denak, eta garedunek ere han baziren, pues han gintuen denak.

4.5. Ondo jan eta edan artzainek

- **Hizlaria(k):** Larralde Ustariz, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** BAZ-003/018
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:30:31. **Bukatu:** 00:33:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Diasporako bizimodua

- **Laburpena:** Ondo jaten zuten AEBn artzain egon zirenean: zikirokia, ogia; ardoa ere nahi zuten guztia. "Galona" (galoia) izeneko ontzian erabiltzen zuten, 4 litro ingurukoa. Dena husten zuten bero zelarik. Baina kalte egiten zien. Beraiek prestatu behar zuten janaria. Beroa eta haizea ziren basamortuko etsaiak, baita janaria prestatzeko orduan ere.

Transkripzioa

-Zu bakarrik ibiltzen zifan, ba, asto horrekin, asto batekin esan dezu?

-Bai, bai.

-Astoan gañian ohantzia jarri, jatekoa ere bai, pentsatzen dut.

-Bai, bai, ohatzea ta... bai, jatekoa.

-Ta jatekoa zer izaten zifuten?

-Jatekoa... jatekoa ona ginuen, beti zikirokia. Bueno, hola, zikirokia baiño hobe, seguraski... Zikiroa erraten da, orai hemen ere zikiro jatea, errateko, aldatue da. Orai bildotsa da, bildotsa haundie ekartzen dute Erribera aldetik eta, bueno, han ere igual, berdin. Konjeladoreetan-ta egiten zituzten, nagusiak egiten zituen, kontserbatzen zituen eta haragie nahikoa izaten ginuen jateko eta ogie ere ekartzen zuten, arnoa ere nahi ginuen guzie... Oroitzen naiz urte txar batez ere, pues...orai erran datzutena, urte batez nola egiten genituen hamabi mile (18 km) bueno... ardoa ere edaten ginuen aise, ta han bada neurri bat "galona" deitzen diotena, lau bat litro, hemengo neurrie dauke, bueno, dena husten ginuen, pentsa ezazu! Baina ez zuen sobera onik egiten, zeatik uzten zuen azkartutzearen uste dut ahuldua uzten zuen, zeatik egarri harek ta jateko gogoa ere pixka bat kendu, eta, beno, jateko astirik ere ez ginuen izaten, aldike behar zen tenorian, ta bueno, hola.

-Ta zikiroa edo zikirokia esan dezu izaten zenutela, hori prestatzeko edo...?

-A, hori geronek behar genuen egin, e. Ta gero desiertoak dituen gauza txarrak dire gero beti da bero bat izugarrie, edo da haizea. Ta aunitz aldiz hasten zara ta bueno arraultzea, arraultzea ibiltzen genuen aunitz, arraultzea hartzen zen han zartagian berotzen eta igual heldu zen haizia ta han ematen zuen, [...] gatza bakarrik. Bueno, holako komeriek pasten zioen, baino jatekoa nahikoa izaten genuen. Eta arnoa ere bai, e, sobera, zeatik geronek ez genuen neurria hartzen.

4.6. Euskaldunak ongi ikusiak Ameriketara

- **Hizlaria(k):** Larralde Ustariz, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** BAZ-003/025
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:46:16. **Bukatu:** 00:48:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia
Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Hizkuntzak diasporan
- **Laburpena:** Harrera ona egin zioten hara heldutakoan. Euskaldunak ongi ikusiak ziren. Ingelesa pixka bat ikasi zuen. Nagusiak espainiera-ingelesa liburua eman zion "pronunciación figurada" zuena. Hori garrantzitsua da ahoskatzen ikasteko.

Transkripzioa

-Hara joan zinetenean, Ameriketara, Kaliforniara, nola hartu zintuzten jendeak edo nolako harrera egin zizuten?

-Bueno, ni nere jendaketara joana nintzen, e! Bueno, orduen, neri [...] zataten, igual argazki batetik izagutzen ahal zataten, igual ni nintzela. Baiño, bueno, aeroportora bazakiten noiz ailegatiko ginen eta, bueno, han agertzen ziren eta, bueno, han biltzen zaguten eta gaten ginen gau hartan haren etxera eta igual egun pare bat pasatuko ginuen ta ardien berri ere erakusten-ta ere, hola, lanik gogorki egin gabe, eta holaxe in ginuen.

-Euskaldunak ongi ikusiak zinaten han?

-Euskaldunak ongi ikusiak, bai. Gure denboran eskualdunak ongi ikusiak. Zeatik amerikanoak ere... bueno, izagutu ginuen, inglesa pittu bat ikasi genuen, maite zagutela pixkat. Inglesa gutti ikasi ginuen, baiño... Bueno, nik ikasi nuen puxka bat, zeatik suertea ere izan nuen, nagusiak ekarri zauten liburu bet: "español-inglés" eta azpian "pronuntziacion figurada". Ta, klaro, hori da printzipalena, zegatik klaro, zuk entenditzen duzu inglesa edo frantsesa, beno, badakizu ez dela han paratzen duen bezela erraten, baiño "pronuntziacion figurada" da pixkat goiti-beiti, e.

4.7. Ingelese ez jakitearen komeriak

- **Hizlaria(k):** Larralde Ustariz, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** BAZ-003/026
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:48:00. **Bukatu:** 00:49:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Hizkuntzak diasporan
- **Laburpena:** Osaba batek erosketak egin behar izaten zituen eta ingelesez jakin ez. "Two pounds, kiss" (muxua) eskatu zuen. Andrea harrituta. Apaletik gazta hartu ('cheese'- 'txis') zuenean argitu zen endredoa.

Transkripzioa

Zeatikan badire lehenao're komediak pastukoak, ez dakit sobera luzetuko dugun edo [ez den]. Oroitzen naiz nere osaba bat ere bera ardiekin hasi omen zen ta,.. karo! Hemendikan [aurre]'re ez zakien ingelesez deus ez, baiño gero bere artzaiñendako behar zituen gauzak erosi, botiketan. Ta, beno, ba gan omen zen dendara ta inglesa zakurran ipurdire [mintzeon]. Eta, bueno, lehenbizikoik in omen zituen galde modu batzuk eta [geo] ongi, ta. Emazteki bat omen zen, eta gero erraten omen dio, beti ere "two pounds", bi libera, "kiss", — muxua da "kiss"—. Andrea... Bai, berriz ere nere osaba harek berdin. Andrea serio. Azkenean ezautu zuelaik, "gaizki erraten ai naiz ingelesez seguruena". Sartu botikan berak eta hartzen omen du gasna bat, [badakala] ta... "Ah! Cheese!".

4.8. Miseriak eta neska-kontuak mintzagai elkartzen zirenean

- **Hizlaria(k):** Larralde Ustariz, Jabier
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Erref:** BAZ-003/027
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:49:25. **Bukatu:** 00:51:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
Diaspora » Ohiturak eta bizimodua diasporan » Familia eta harremanak diasporan

- **Laburpena:** Berriki egon da txistua jotzen Kalifornian eta Nevadan, hango euskaldunek deituta. Euskaldunak elkartzen zirenean, elkarri miseriak kontatu, neska-kontuak eta horrelakoak erabiltzen zituzten.

Transkripzioa

-Eta holako komeriak, eta bueno. Nik inglesa poliki ikasi nuen, baino geroztik izana naiz hiru aldiz, e. Gero gan den nobienbren gan ginen, aita ta semia´re txistularie da, eta biek izandu ginen, deitu zaguten dantza batzuk erakustera han Kaliforniara. Ta Nevadan ere bai, Renon´e ibili ginen. Ta han pastu ginuen hamahiru egun.

-Euskal etxen batera edo?

-Bai bai, denak eskualdunek, denak eskualdunek, bai. Eskualdunek, eskualdunek... ez dut erraten ahal mintzetzeko zerbait bazakitenak, baino, bueno, eskualdunen umiak. Eskualdunen umiak, dantzan nahi dutenak, eskuarai segitzen dutenak, baiño, ta bueno, nahi dituzte... kostunbriak nahi dtuzte segitu ta, bueno, dantzak-eta nahi dituzte ikesi, ta holaxen.

-Ta zu han artzai egon ziñen garaian, ikusten al zen euskaldunak biltzen ziñatela eta holako mugimentorik ta zuen artian bildu ta kontu kontari ibili ta hola saiatzen ziñaten elkartzen?

-Bueno ba, bai, bai, beti. Beno, kontatzen... lagunen artean kontatzen gintuen gehienen geren mixeriek, bakizu, geren gauz txarrak, eta beno, edo bazkik ez zela ta [...] ikusi zinuela ta... bueno, holako gauzek kontatu. Ta gero hemen, hemengo, beno, [gaztetako] neska kontuk, ta bueno, [...]. Ta holaxe.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gurasoak erratzuarrak (BAZ-001/002)

Aita-amak Erratzukoak ziren; aita Etxegarai-beheitiko semea eta ama Mamutsen bordakoa. Amaren aita Erratzura joan zen desertore eta Mamutsen bordara ezkondu zen. Ama-eta zortzi anai-arreba ziren, eta erdiak Argentinara joan ziren. Badute harremana.

2. Jende asko joaten zen Ameriketara (BAZ-001/004)

Etxean sobera ziren gehienak Ameriketara joaten ziren. Hemeretzi seme-alaba izan zituen familia batek Erratzun. Aitaren arreba bat ezkondu ondoren Ameriketara joan zen, Buenos Airesera. Haren semea, ordea, Erratzun hezi zuten 19 urte eduki arte. Hark hamaika seme-alaba izan zituen. Ziprianoren gurasoekin harremana mantendu zuten gutun bidez.

3. Karlistadetatik ihesi Ameriketara (BAZ-001/005)

Ameriketara joan zirenak, hasieran, karlistadetatik ihesi joandakoak izan ziren. Frantziara aurrena eta, ondoren, Buenos Airesera joaten ziren. Mexikora eta Txilera ere joaten ziren.

4. Anaia etxera ezkondukoan, besteek alde egin behar (BAZ-001/006)

Bederatzi anai-arreba ziren. Haietako bakarra ezkondu zenez etxera, gainontzekoek joan egin behar izan zuten. Familiako lehenengoak izan ziren lantegian lan egiten. Arreba nagusiena Arrasatera joan zen bizitzera eta haren ondoren, bata bestearen ondotik, hainbat anai-arreba ere bai.

5. Aitak etxerako semea nahiago (BAZ-001/008)

Bere garaian, senideetan zaharrena izaten zen etxerako. Beraienean, zaharrena arreba bazen ere, aitak semea aukeratu zuen.

6. Errepublikara garaiko eskola (BAZ-001/009)

Urte pare bat egin zuen Erratzuko eskola publikoan. Errepublikara garaian debekatu zutela euskara eskolan esaten du, eta gurutzeak kendu zituztela eskoletatik. Abadeen esana betez, ikasleek eramaten zuten gurutzetxoak paparrean.

7. Elizondoko eskolatik Gironara (BAZ-001/010)

Elizondora ezkondua zegoen arrebaren etxera joan eta beste urtebete egin zuen hango eskolan. Izeba batek hazitakoa zen Erratzuko apaiza eta haren bitartez, kolegiara eraman zuten, Gironara.

8. Gerrak Gironan harrapatu eta Iruñera etortzea lortu (BAZ-001/011)

Gironan harrapatu zuen gerrak, kolegioan. Gorriek hango fraide batzuk hil zituzten eta Bartzelona hiriburura eraman zituzten ikasleak, babes-etxe batera. Etxeetako sotoetan babesten ziren bonbardaketetatik. Gerra bukatzen ari zela, Errusiara bidali nahi izan zituzten. Azkenean, trenetaz Frantzia zehar Donostiara eta handik Iruñera joan ziren.

9. Gerrarengatik, Iruñetik Baztanera, etxera (BAZ-001/012)

Iruñeko seminario zaharrera eraman zituzten eta bere koinatu argazkilaria kotxez joan eta Baztan inguruko mutikoak etxera eraman zituen.

10. Gerra garaian naranja eta kakahuete azalak jaten (BAZ-001/014)

Goseak ibiltzen ziren Bartzelonan, bonbardaketak zirela eta. Batzuetan lapurretan egiten zuten jateko; kakahuete eta laranja azalak jaten zituzten. Aza kirtanak zurruputzen aritzen ziren.

11. Eskolako fraide guztiak hil zituzten gorriek (BAZ-001/015)

Beren kolegioko fraide guztiak hil egin zituzten; denera bederatzi. Horietatik bi jateke batean ari ziren lanean, baina errezatzen harrapatu eta milizianoek fusilatu egin zituzten.

12. Gose handia pasatu eta gero, ezin jan (BAZ-001/016)

Touloussen zeudela, afaltzen eman zieten: haragi xerra patata frijituekin. Baina hainbesteko gosea paseak ziren, patata batzuk besterik ezin izan zituzten jan. Hendaian kafesnea eman zieten gailetekin eta haiek jan zituzten.

Donostiara iritsi zirenerako, egunkarietan agertu ziren. Bakoitza bere herrira bidali zituzten. Bere koinatuak eraman zituen baztandarrak bailarara.

13. Jan ezinik zegoenez, medikua etxera (BAZ-001/017)

Baba gorriak eta gaztainak zeuden etxean jateko eta ezin izan zituen jan. Larrituta, medikua ekarrarazi zuten eta hark amari esan zion seruma hartu behar zuela aste batzuez. Pixkanaka jaten eta indartzen hasi zen.

14. Hiru anaia gerran, Zipriano ardi zain (BAZ-001/018)

Hiru anaiak gerran zebiltzala, eskubidea eman zuten etxe bereko hiru seme gerran zituztenei, hauetako bat libratzeko. Seme nagusia etxera itzuli zen. Zipriano, bitartean, bizilagunen ardiak zaintzen ibili zen urte bat eta erdiz. Hilean zortzi duro ematen zizkion.

15. Zipriano anaia ordezkatzera, morroi (BAZ-001/019)

Beste bi anaiak gerratik bueltatzean, bigarren anaia, Etxebeltzea baserrian morroi hasi zen lanean. Hau gaixotu zenean, Ziprianok ordezkatu zuen. Handik gutxira, gaixo zegoen anaia hil egin zen. Hogeita bat urte bete arte egon zen bertan.

16. Morro izatetik, soldadutzara (BAZ-001/020)

Hiru urtez ibili zen soldadutzan Gipuzkoan eta Nafarroan barrena. Kamoiarekin istripu larria izan zuten. Abere trenetan, Gasteizen eta Donostian barrena, Pasaia eraman zituzten. Han kanpin dendetan egiten zuten lo.

17. Soldadutzan Jaizkibel inguruan (BAZ-001/021)

Pasaian kanpin dendetan lo egiten zuten. Kuartel modura txabolak egin zituzten. Pasai San Pedron eta Jaizkibelen egon ziren. Hango baserri bateko alabak Espainiako errege batekin familia izan zuen eta erregeak hango alabari inguruko lur guztiak eman zizkion. Baserri hartan lanean lagundu eta jatekoa ematen zieten.

18. Muga zaintzea zen bere lana Jaizkibel inguruan (BAZ-001/022)

Muga zaintzen zuten Jaizkibel mendian. Hitler eta Francoren Hendaiako bilera ikusi zuten optikoekin. Ispilu bidez, morse bitartez eta linternekin komunikatzen ziren mendien artean.

19. Maki bila, Ziprianoren taldeko bat hil (BAZ-001/023)

Oiartzunen eta Igeldon ibili ziren. Gero, Loiolan zegoela, konpainiako batzuk Ezkurrako mendietara bidali zituzten maki bila eta han Ziprianoren taldeko bat hil zuten.

20. Soldadutzatik herriko jaietara ihes (BAZ-001/025)

Lesakan zegoela, sarjentuak herriko jaietara joateko baimenik eman ez zionez, autobusez ihes egin zuen. Lesakako San Ferminetan ere ibili ziren.

21. Soldadutzako kanpalekuak (BAZ-001/026)

Soldaduentzat kanpamendu aurrefabrikatuak egiten aritzen ziren. Beraiek lonekin egiten zuten kanpalekua, azpian adarrak eta ira jarrita. Kanpamenduetan hezetasun handia izaten zela dio.

22. Esnea, gurina, gasna eta gatzura abereetatik (BAZ-001/027)

Sei behi, ehun eta berrogeita hamar ardi eta ahuntz batzuk izaten zituzten Erratzuko etxean. Esnea saldu egiten zuten. Gatzura txerriak hazteko erabiltzen zuten. Gurina behi-esnearekin egiten zuten eta gasna ardi-esnearekin.

23. Gaztetako Erratzu (BAZ-001/028)

Bera gaztea zela bi mila lagun inguru bizi ziren Erratzun. Ehun eta hogeita bost kale-etxe zeuden. Auzo asko zituen herriak eta lursail handiak. Erratzuko auzoak izendatzen ditu. Aritzakunen kuartela, errota eta eskola zeuden.

24. Errotara gauez (BAZ-001/029)

Gerra garaian errotak itxi zituztenean, klandestinoki ibiltzen ziren gauez. Bere anai bati errotara zihoala karabineroa agertu zitzaionekoa kontatzen du.

25. Entregatzeko garia erosi egin behar (BAZ-001/030)

Garia eta artoa entregatu egin behar izaten zuten. Garia beraien sailetan ez zen ongi etortzen, eta etxean nahikoa ez zeukatenez entregatzeko, erosi egin behar izaten zuten.

26. Garia eta azukretarako erremolatxa ezin lortu (BAZ-001/031)

Sindikatuak eskatuta, azukretarako erremolatxa ereiten zuten, baina ez zen handitzen. Patatak eta abereentzako erremolatxak handiak egiten zitzaizkien. Arto asko batzen zuten baina garirik ez.

27. Belarrak egiteko egunetako jatorduak (BAZ-001/032)

Goizetan kafesnea hartzen zuten. Segan egin behar izaten zutenean, ogitartekoa eramaten zuten otamena egiteko; hamarrak aldean, patatak tomatearekin ala okela egosia tomatearekin jaten zuten; hamabiak aldean beste mokadutxo bat egin eta ordu bata aldean baba gorriak eta azak edo entsalada jaten zituzten.

28. Etxeko entsaladak (BAZ-001/033)

Tomatea eta piperra entsaladan jateko ohitura Kataluniatik ekarri zuen berak. Aurrez, entsalada nola prestatzen zuten azaltzen du, letxuga eta laban erretako tipularekin.

29. Kontrabandoan ekarritakoak (BAZ-001/034)

Kontrabandoan denetarik ekartzen zuten mugaz bestaldetik. Olio, ogia, irina eta etxean falta egiten zuen dena. Eskuzko errotak ekarri zituzten, etxean ehotzeko.

30. Kontrabandoan karga bizkarka eta zaindariak tiroka (BAZ-001/036)

Olio, azukrea, irina... mugaz bestaldetik ekartzen zituzten, baita argia egiteko petrolioa edo karburoa ere. Baigorri, Bidarra, Urepele, Aldude eta denetara joaten ziren. Dena bizkarka garraiatzen zuten. Gehienez bi buelta egiten zituen berak gau bakarrean. Zaindari asko egoten zen eta tirokatu egiten zituzten; hildakoak eragiten zituzten tarteka.

31. Kontrabandoan zebiltzala karabineroek alto eman zituztenekoa (BAZ-001/037)

Emakumeen galtzak eta Bilore xaboiak eramane eta kotxeentzako kubiartak ekartzen zituzten mugaz bestaldetik. Karabineroek alto eman ziotenekoa kontatzen du.

32. Kontrabandoan, gaueko hamabost duro (BAZ-001/038)

Karga behin bakarrik galdu zuen. Emakumeentzako galtzak eta Bilore xaboiak trukatu egiten zituzten kotxe kubiartekin. Gaueko hamabost-hemezortzi duro irabazten zituzten; asko zen garairako.

33. Autobusen kubiarta pisutsuak kontrabandoan (BAZ-001/039)

Batzuetan mugatik beste herri batzuetara eramaten zuten karga: Arizkun, Elizondo... Autobusen kubiartak oso pisutsuak ziren eta lau lagun artean eramaten zituzten, haga batekin edo bizkarka.

34. Poliziek txanpon ingelesak eskaintzen zizkieten (BAZ-002/001)

Poliziek, kanpotarrak zirela esanez, txanpon ingelesak hartzeko engainatu nahi izaten zituzten kontrabandoan zebiltzanean.

35. Mugatik jendea pasatzea arriskutsu (BAZ-002/002)

Mugatik jendea pasatzea arriskutsua zen. Gerraostean gizon bat harrapatu egin zutela eta Durangon eduki zutela bi urte inguruan kontatzen du. Beraiek jeneroa bakarrik pasatzen zuten. Frantziara dirua bidaltzen zuen gizon bat harrapatu zutela ere kontatzen du.

36. Soldaduek lur azpian bideak egiten zituzten (BAZ-002/003)

Erratzu ingurua "nido"z beteta dagoela dio. Soldaduek bideak egiten zituzten lur azpian "nido" batetik bestera. Lur gainean metro bat zementua jarri eta haren gainean hormekin egindako gela horiek, leiho eta guzti. Bista onena zegoen aldera egiten zituzten, handik bideak zelatzeko.

37. "Trabajadoreak" Erratzun (BAZ-002/004)

Gerra denboran atxilotutako gorriak "Trabajadoreetan" edukitzen zituzten. Zortzi mila egon ziren Azpilikueta, Arizkun eta Erratzun. Zigor gogorrak jartzen zizkieten. Batzuk hil ere egin zituzten; beste batzuek ihes egitea lortzen zuten.

38. Makiak baserrietara (BAZ-002/005)

Makiak baserrietara joaten ziren. Baserrian aurkitutako elikagaiak hartu eta baserritarrak aulkian lotuta uzten zituzten.

39. Mehatxupean "borondatez" soldadu (BAZ-002/008)

Soldadu erreketek eta falangistak muga inguruan egoten ziren abereentzat egindako txaboletan, muga zaintzen. Batzuetan euren artean liskarrak izaten zituzten. Bere anaiak beharturik joan ziren soldadu. Herrian baziren "borondatez" joandakoak ere, baina mehatxupean. Erratzuko apaiza erreketek zen eta hark ere talde bat eraman zuen. Herritar batzuk hil ere egin zituzten gerratean.

40. Gerra sasoiko salaketak eta fusilatzeak (BAZ-002/010)

Baztan aldean gerra sasoiaren ez zela egon elkar salatu eta hiltzeko joerarik dio. Arrasate inguruan hainbat apaiz eta beste zenbat herritar atxilotu eta hil zituzten, tartean bere amaginarrebaren anaia. Non atxilotu eta hil zuten azaltzen du.

41. Hasieran anaiarekin jaiotetxean; gero Arrasatera lanera (BAZ-002/012)

Anaia euren jaiotetxera ezkondu zen. Bera ere han bizi izan zen hasieran eta bere ardi eta txerri propioak izan zituen erosita. Baina arrebak han ez zuela inoiz jabetzarik izango eta lana nahikoa zegoela eta Arrasatera joateko esaten zion. Hala, abereak kendu zituen eta pixka batean zain egon bazen ere, etorri zitzaion Arrasatera joateko aukera. Koinatuak Zerrajeran lan egiten zuen eta Jose Berezibar abadearen laguntzaz hantxe hasi zen bera ere. 36 urte zituen.

42. Arrasateko "Unión Cerrajera"n zamalanetan (BAZ-002/014)

Arrasatera joan zenean, "Unión Cerrajera" lantegian hasi zen lanean, zamalanetan. Lantegiaren sekzio guztietan jarduten zuen eta dena eskuz egiten zuten. Zer material erabiltzen zuten. Pieza astunekin nola ibiltzen ziren. Lau urte egin zituen lan horretan.

43. Zamalanetatik garabia erabiltzera pasa zen (BAZ-002/015)

Arrasateko "Unión Cerrajera"n zamalanetan lau urte egin ostean, garabiarekin hasi zen. Garabiak orduan jarri berriak ziren eta bera ordurako zamalanetako pisu astunekin beldurtzen hasia zenez, probatzea pentsatu zuen. Garabiarekin karga handiak nola mugitu asmatu zuen eta arduradunak zoriondu egin zuen.

44. Goizeko seietatik gaueko hamarretara lanean; eskupekoak (BAZ-002/016)

Arrasateko "Unión Cerrajera"ko kontuak. Garabiarekin lan egiten zuen sasoiaren, karga handiagoak (15000 kilo inguruko biribilkiak) ekartzen hasi ziren. Materialaren inguruko azalpenak: nondik etortzen zen, zer arazo izan zituzten... Goizeko seietarako iristen ziren kamioiak eta bera ordu horretarako joaten zen. Gaueko 10ak arte jarduten zuen. Denek kamioia lehenbailehen hustea nahi izaten zuten eta eskupekoa ematen zieten azkar deskargatzeagatik. Eskupekotan bi lagunaren artean 1000 pezeta irabaztera iritsi zirela dio, soldatarekin irabazten zutena baino gehiago.

45. Garabia utzi eta makinekin hasi zen lanean (BAZ-002/017)

Hamar urte egin zituen garabiarekin lanean, baina hango balantzarekin dardara gorputz barneraino sartua zuen eta arduradunari lanpostua aldatzeko eskatu zion. Hala, makinekin hasi zen, ordezeko moduan.

46. Hiru erreleboan lanean, Zerrajerako labeetan (BAZ-002/019)

Beste lanpostu batzuetatik pasa ostean, hiru erreleboan hasi zen lanean Zerrajeran, labeetan. Ez zuten izaten ogitartekoa jateko astirik. Aste eta jai lan egiten zuten. Larunbatean aparteko dirua ordaintzen zieten eta igandeetan bikoitza. Lantegiko injineruak kexatu egin omen ziren, beraiek gehiago irabazten zutelako. Hamasei urte egin zituen lan horretan.

47. Igandero dantzan (BAZ-002/024)

Igandero musika egoten zen plazan. Baina abadeek ez zuten dantza lotua egiten uzten. Auzo guztietan ere erromeria egoten zen igandero, ahoko soinuarekin edo akordeoiarekin eta herriko jendea auzoetara joaten zen ezkutuan dantza egitera.

48. Baztango herrietako jai guztietara joaten ziren (BAZ-002/025)

Erratzuarrak herrian bertan dibertitzen ziren normalean, baina jaietan joaten ziren beste herri batzuetara. Baztanen asko mugitzen ziren gazteak. Autobusak egoten ziren.

49. Baserrietatik elizara jendea igandeetan (BAZ-002/026)

Baserrietan jende asko bizi zen lehen. Igandeetan euren etxe aurretik 100 lagun pasako zirela mezara bidean dio. Erratzuko eliza ez dela txikia dio. Ermitak ere badaude auzoetan. Euren baserria Aranekoerreka auzoan zegoen.

50. Neska-mutilak elizaraino elkarrekin, baina barruan aparte (BAZ-002/027)

Auzoko neska-mutilak elkarrekin joaten ziren mezara, baina elizan emakumeak alde batean eta gizonak bestean egoten ziren, banandurik. Hilarriak egoten ziren eliza barruan eta han argizariarekin egindako kandelak. Gerora, harri-lauzak kendu eta egurra jarri zuten.

51. Besoetako iloba ezkontza bezperan jaio (BAZ-002/030)

Iloba euren ezkontza bezperan jaio zen eta anaia ezin izan zen ezkontzara joan. Gainera, bera aita pontekoa zenez, Arrasatetik Iruñera joan ziren gaua pasatzera eta biharamunean Erratzura, bataiora. Bi anai-arreba ezkondu ziren batera.

52. Euskararekiko maitasuna (BAZ-002/038)

Bere bizia euskara izan dela dio. Gaztelaniaz ere ondo daki, baina berak euskara maite du. Hamabost herrik osatzen dute Baztan eta denek antzeko euskara darabilte. Iparraldeko euskararen ukitua dutela dio. Gaztetan ez ziren asko irteten herritik; bizikleta zutenak inguruko herrietaraino bakarrik. Soldadutzan ez zuten bere euskara ulertzen.

53. Bere euskararen eta Arrasatekoaren arteko ezberdintasunak (BAZ-002/040)

Soldadutzan berak ez zuen izan arazorik besteei ulertzeko, baina berari ez zioten ulertzen. Bere euskararen eta Arrasatekoaren arteko aldea.

54. Baztan osoan euskara berdintsua; Iparraldekoekin ere euskaraz (BAZ-002/041)

Baztanen ezberdintasun gutxi dago euskararen herri batetik bestera. Doneztebe aldera, Almandoz aldera edo Orreaga aldera hasten dela euskara aldatzen dio. Iparraldekoek ulertzen zieten, nahiz eta pixka bat gehiago kostatu. Han kanturako joera zegoela dio, Bilbo aldean bezalaxe. Euskaraz egiten zuten.

55. Harremanak euskaraz; guardia zibilei ezin ulertu (BAZ-002/042)

Garai batean aduana egon zen Erratzun eta kontrabandoko gaiak enkantean jartzen zituzten. Inguru guztietako jendea biltzen zen, baina elkar ondo ulertzen zuten. Gaur egun iparraldeko herrietan euskara asko galdu dela dio. Euren sasoian zeuden erdaldunak guardia zibilak eta karabineroak izaten ziren. Sinadurak batzen ibiltzen ziren, euren nagusiei nondik nora ibili ziren erakusteko. Haiei ez zieten ulertzen, euskaraz ez zekiten eta.

56. Xabierko Frantziskok euskaraz heriotza orduan (BAZ-003/004)

Xabierko Frantzisko oso gaztea zen Nafarroaren konkista gertatu zenean. Anaiek parte hartu zuten gerran. Xabierko Frantzisko Parisera joan zen lehendabizi. Gerora, Japonen barna ibili zen. Azkenetan zegoelarik "hizkuntza ezezagun batean" (euskaraz) egiten omen zuen otoitz.

57. Sodadutzatik libratu "hanka lauak" zituela eta (BAZ-003/010)

Hanka planoak zituela alegatu zuen soldadutzatik libratzeko. Mediku batek emandako aholkuei jarraituz libratu zen. "Útil para servicios auxiliares" deklaratu zuten.

58. Bazka ona eta ur ugari behar du ardiak (BAZ-003/013)

Arizkunetik bera bakarrik joan zen txanda hartan AEBra. Urte batzuk onak, beste batzuk ez hainbeste. Bazka nahikoa izanez gero, ondo omen dabil artzaina, baina urte idorretan artzainak batera eta bestera ibili behar du. Ur asko behar du ardiak. 18 km-ko ubide baten alboan bazkatu ohi zuen bere artaldeak. Astoan erabiltzen zituzten beren gauza guztiak. Hura ondo zaindu behar zen ihes egin ez zezan.

59. Bi mila ardiko artaldea (BAZ-003/016)

Bi mila ardiko artaldea izaten zuen. Batzuetan ardiak eta arkumeak, beste batzuetan ardiak bakarrik. Maltzo handiak ondo gobernatzen dira nahikoa bazka izanez gero. 'Merinoa' da hango ardi klasea. Hemengoa 'latxa'. Merinoaren ilea hobe da oihaigintzarako. Abere handiagoa da merinoa latxa baino.

60. Amaiurko artzain-laguna aurkitu zuenekoa (BAZ-003/019)

Nagusiak esan zion basamortuan hamar bat kilometro harago zebilen artzaina Amaiurkoa zela. Ilunabarrean, ardiak leku seguruan zirelarik, elkarrengana bildu ziren. Elkar ez ezagutzeko moduan zeuden, ilea eta bizarra luze-luze. Gutxi garbitzen eta apaintzen ziren.

61. Artzainak elkarrengana neguan (BAZ-003/020)

Neguan artzainek elkar ikusteko denbora gehiago zuten. Beheko belazeetara jaisten ziren ardiak erditze garairako, elkarrengandik hurbil egoten ziren artaldeak. Bakoitzak bere trailerra (roulotte) izaten zuen eta han prestatzen zituzten jatekoak. Herrira ere joaten ziren erosketak egitera. Gauerdialderaino elkarrekin egoten ziren.

62. Afalosteko berriketaldiaren ondoren, bildots jaio berriak artatzera (BAZ-003/021)

Gauerdian artaldera hurbiltzen ziren bildots erditu berriak beren amekin ipintzeko. Bizkiak elkarri lotuta jartzen zituzten. 'Gaitzesak' (amak maite ez dituen bildotsak) ez ziren asko izaten. Maite izateko trikimailuak.

63. Lanik txarrenak egin eta gutxi irabazi, emigrantearen patua (BAZ-003/023)

Berrehun dolar irabazten zuen hilean, hori zuen soldata. Urtean behin egiten zituzten kontuak. Zenbat irabazi, zenbat gastatu arropatan, oinetakotan eta abar... Gutxi kobratzen zuten eta lanik txarrenak egiten zituzten, orain hemen etorkinak bezala.

64. Gurdientzako gurpilak (BAZ-016/002)

Zurezko gurpilak nolakoak ziren azaltzen du. Gurdiak lanerako erabiltzen zituzten baserritarrek.

65. Txerri-hiltzea (BAZ-016/005)

Baratzea, oiloak eta txerriak izaten zituzten. Txerria hiltzen zutenean, trikinosiaren kontrola egiten zioten haragiari. Txerria aita hiltzen zuen. Aulki baten gainean hiltzen zuten lau lagun artean. Sopletearekin erretzen zuten etxean, eta kanpoan iratzea edo lastoarekin.

66. Txerri-hiltzen etxez etxe (BAZ-016/006)

Aita etxez etxe txerri-hiltzen ibiltzen zen inguruetan. Bizikletaz eramaten zituzten tresna guztiak. Gosaria eta dirua ematen zizkieten ordainetan.

67. Gurdiak egiteko zura (BAZ-016/007)

Aita zurgina zen. Gurdiak, lerak, konponketak... egiten zituen. Makala, akazia, haritza... erabiltzen zituen. Gurpilak egiteko akazia erabiltzen zuen. Gurdia egiteko, akazia edo haritzarekin egitura egiten zuen eta oholak makalarekin. Eskuz egiten zuen dena.

68. Gurdiaren gurpilari burdina nola jarri (BAZ-016/008)

Gurdiaren gurpilari burdina bueltan nola jartzen zitzaion azaltzen du zehatz.

69. Umetako lanak eta mutil joan zenekoa (BAZ-016/009)

Aitari laguntzeaz gain, umetan nolako lanak egiten zituen azaltzen du. Hamalau urterekin Gartzaingo etxe batean ibili zen mutil edo morroi.

70. Kontrabandoa edo gaueko lana (BAZ-016/011)

Bere gazte garaian, kontrabandoan ibiltzen zenik bazen. Gogoan du, aduanan harrapatutakoak enkantean saltzen zituztela. Gaueko lana esaten zieten. Garraiatzen zituzten materialak aipatzen ditu. Kotxe bat pasatu zutela entzuna du. 60. hamarkadan bukatu zen.

71. Frantzia aldean oihanean lanean (BAZ-016/013)

Oihaneko lana nolakoa zen azaltzen du. Beraiek egiten zuten bizitzeko etxola ere. Ohea enborrekin, urritz makilekin, lastoarekin eta mantarekin egiten zuten. Etxolan egiten zuten sua jatorduetarako. Zer jaten zuten azaltzen du. Igandetan garbitzen zuten gorputza eta arropa errekan.

72. Oihaneko lana, lan arriskutsua (BAZ-016/014)

Frantziara oihanera lanera jende asko joaten zen Baztan aldetik. Lan arriskutsua zen. Ardi larrua eta zira erabiltzen zituzten.

73. Lehenengo egunak artzain Ameriketan (BAZ-016/017)

Zortziehun ardi eta mila bildotsekin artzain ibili zen, ofizioa jakin gabe. Lehenengo egunekotako zailtasunak azaltzen ditu.

74. Artzain egon zeneko bizimodua eta hango piztiak (BAZ-016/018)

Artaldea bildurik ibiltzen zen eta ez zuen galtzeko beldurrik izaten. Bizilekua deskribatzen du. Bakardadeari aurre egiteko, zuloak egin eta tapatzen aritzen zen. Sugeekin ez zuen arazo handirik izan baina koiotearekin bai.

75. Artzain ibili zenean, txakurra eta nagusia laguntzaile (BAZ-016/019)

Ardiek eta bildotsek korralean lo egiten zuten neguan. Udan erakutsi egiten zieten ardiei geldi lo egiten. Txakurrak beharrezkoak ziren. Nagusiak egunero ardiendako ura ekartzen zion.

76. Artzain aritu eta gero, arrantxo batera (BAZ-016/021)

Soldadutzatik libratzeko beste denbora egon zen Ameriketan. Artzain aritzeaz gain, arrantxo batean ere lan egin zuen New Yorken, bi arreba han zituelako. Hiztegiarekin ikasi zuen ingelesez idazten eta irakurtzen.

77. Manhattan beldurgarrian (BAZ-016/022)

New Yorken, Manhattanen, denda batean lan egin zuen. Garai hartan leku beldurgarria zela dio.

78. Ameriketatik Elizondora (BAZ-016/026)

Baztanera itzuli zenean, anaiarekin batean zurgin lanetan hasi zen.

79. Kanpora lanera joateko beharra (BAZ-016/028)

Lesakan lantegia martxan jarri zenean, bere anaiak han hasi ziren. Diru pixka bat lortzeko, nonbaitera joan beharra zegoen.

80. Euskalduna estimatua Ameriketan (BAZ-016/030)

New Yorken izan ezik, euskalduna estimatua zen Ameriketan.

81. Euskaldunak Ameriketan (BAZ-016/031)

XIX. mendean joan ziren lehenengo baztandarrak Ameriketara artzain. Argentinara urre bila joandako euskaldunak ere izan ziren. Euskaldunen negozioak Ameriketan.

82. "Euskal Artzainak Ameriketan" elkarte (BAZ-016/032)

"Euskal Artzainak Ameriketan" izeneko elkartearen funtsa azaltzen du. Elkartu eta bizipenak konpartitzeko baliagarri zaiela dio.

83. Idiak eta behorrak kontrabandoan (BAZ-018/001)

Abereen kontrabandoa ezagutu zuten, Espainiatik Frantziarakoa. Ondoren, kafea, sakarina...

84. Estraperloa gauean izaten al zen? (BAZ-018/003)

Iluntzean Ultzamaraino joaten ziren. Egunez baino diru gehiago irabazten zen horrelakoetan lanean.

85. Osabaren etxean kontrabandoa (BAZ-018/004)

Paketeak eta kutxak gordetzen zituzten aparteko etxe batean.

86. Emakumeek ez zuten militarrekin ezkondu nahi (BAZ-018/006)

Emakumeek ez zuten militarrekin ezkondu nahi. Amerikano asko ere ibili ziren inguruan Elizondo inguruan. Hauek hemen ezkondu ziren.

87. Kontrabandorako metodoak (BAZ-018/007)

Aberatsenak guardiak ziren.

88. Kontrabando garaian drogarik ez (BAZ-018/009)

Drogarik ez zen mugitzen kontrabandoan, produktuak eta dirua soilik. Dirua, berriz, ez zen hain ohikoa.

89. Aspaldi ikasitako bertsoa (BAZ-023/002)

Duela urte asko ikasitako bertsoa abesten du (ez daki norena den).

90. Baztan 12 urtez zapatari gabe (BAZ-026/001)

Baztanen bizitzen geratu nahi zuelako erabaki zuen zapatagintzan hastea. Baztanen 2000 urte ingurura arte baziren zapatagileak. Baina gero 12 urtez zapataririk ez da egon, Harritxuk lanbide hori berreskuratu arte.

91. Zapatagintzaren alde makurrenak eta gozoenak (BAZ-026/002)

Zapatari lanbidea non ikasi zuen kontatzen du. Zapatagintzari ikusten dizkion alderik makurrenak eta alderik gozoenak.

92. Gaur egungo gizartearen eta kontsumismoaren inguruko gogoeta (BAZ-026/003)

Gaur egungo gizartearen eta kontsumismoaren inguruko gogoeta, bere zapatari lanbidetik begiratuta.

93. Zapatari lanean hasteko lehen urratsak (BAZ-026/005)

Bere izebari esker hasi zen zapatari lanean. Horretarako, lehenbizi, Baztanen egondako azken zapatariarekin elkartu zen. Lanbideari buruz ikertzen eta lan horretan hasteko ze urrats eman behar zituen pentsatzen hasi zen orduan. Irakasle bila ibili zen Iruñean, denda denda, baina denek ezezkoa ematen zioten. Ezezkoa emateko zein aitzakia erabiltzen zituzten. Azkenean Mañuetako Migelengana jo zuen eta hark irakatsi zion lanbidea.

94. Zergatik esaten zizuten ezetz zapatariak? (BAZ-026/007)

Zapatariaren bizitza gogorra zela eta lan honetan ez hasteko esaten zioten. Garai bateko zapatagintza eta gaur egungoa oso ezberdinak baitira.

95. Ipuin zaletasuna, nondik? (BAZ-028/003)

Ama beti izan da literaturzalea, haurdun zegoela, magisteritza ikasketak egiten hasi zen. Gauetan ipuinak kontatzen zizkion Amaiari. Berezi ki Iburu bat du gogoan, 'Dino munstroaren beldurrak'. Aita bertsolaria du, eta oso ipuin kontalari ona da gainera.

96. Doneztebeko bertso-eskolan (BAZ-028/004)

Bost-sei urterekin hasi zen bertso-eskolan, idazten eta irakurtzen jakin gabe. Estitxu Arozenaren ikasle izan zen. Txikiena zen hasieran, eta lehenengo egunean bertan adierazi zuen bertsotarako gogo. Aitarekin bertsotan entrenatzen aritu zen denbora batez, eta gaur egun bertsolaritza eta ipuin kontalaritza uztartzen saiatzen da.

97. Bertsolaritzan izandako ibilbidea (BAZ-028/006)

Aitarekin oso harreman estua izan du beti, eta horrek bertsolaritzara gerturatu du Amaia, izan ere, bertsoari esker lagunak eta esperientzia bereziak bizi izan ditu aitak. Bertso-eskolako lagunak beste kuadrila baten modukoak ziren, eta hasiera batean bertso txapelketetarako ilusio handia zuen. Bestetik, ordu eta lan asko eskatzen du bertsolaritzak, eta presiopean lan egiten jakin behar da. Horregatik, ez du bere burua txapelketak prestatzen kokatzen.

98. Lehen lanak ipuin kontalari moduan (BAZ-028/008)

Bergaran Haur Hezkuntzako goi mailako ziklo bat egin zuen, eta modu honetan ipuin kontalaritzara gehiago hurbildu zen. Ipuin kontaketa bideratuta zegoen ikasgai bat zuen Bergaran, eta irakasleak ipuin kontalari izatera animatu zuen. Ipuin kontaketa buruzko ikastaro batean izena eman zuen gero, Maite Franco irakasle zuela. Horrela, Maitek egin ezin zituen ipuin kontaketa joaten hasi zen Amaia, ordezkari moduan, eta poliki-poliki haren bidea egiten hasi zen.

99. Ipuin kontaketa musikatuaren ideia (BAZ-028/009)

Guadalajaran ipuin kontaketa maratoian egon zen entzule gisa, eta ipuin kontalari bat gitarrarekin agertu zenean, Amaiak ere ipuin musikatuak kontatzea erabaki zuen.

100. Euskal mitologiatik eta kultura arabiarretik edaten dute (BAZ-028/011)

Oso zabala da ipuinen mundua, eta ipuinen hautaketan hiru irizpide nagusi erabiltzen dituzte: euskal mitologia eta tradizioa, arabiar kultura eta imaginazioa.

101. "Ez dago denborarik fantasiarentzat" (BAZ-028/012)

Garai batean kontatzen ziren ipuinak sintsi egiten ziren, gaur egun, ordea, ez zaio lekuri egiten fantasiari, dena da egia edo dena da gezurra. Hori dela eta, tradiziozko ipuinak hartu eta kontatzea ilusioz bizi du. Memoria historikoaren transmisio falta.

102. Eskatutako gaiak, zeharka (BAZ-028/014)

Istoria ona izateari ematen diote lehentasuna, ez dute gaia aukeratzen, baizik eta istorioa. Gaur egun gai zehatz batzuk lantzeko eskatzen diete, esaterako, berdintasuna. Zeharka lantzen dituzte gai horiek, istorioa garatuz eta istorioari berari denbora eskainiz.

103. Literatura espazio aske bat izan beharko litzateke (BAZ-028/016)

Unibertsitatearen bitartez Xabier Etxaniz ezagutu zuen. Eskola bakoitzean ipuin bat kontatzen zien. Ipuinak garaiaren arabera modu batean edo bestean ulertzen eta interpretatzen dira. Literatura den bezala errespetatu eta kontrako ideologiadun ipuinak irakurtzen eta kontatzen ere jakin behar da.

104. Beste ideologietatik aritzea (BAZ-028/017)

Amaiaren iritziz garrantzitsua da beste ideologietatik bertsotan aritzen jakitea, baita ipuinak kontatzean ere pertsonaiek kontalariaren kontrako ideologia izatea. Politikoki zuzena den horretatik haratago joatea.

105. Antzerkia eta kontalaritza (BAZ-028/019)

Kontalaritzaren eta antzerkiaren artean dagoen muga batzuentzat ez da argia. Antzerkigintza orokorra arautuagoa da kontalaritza baino, publikoari berdinean antzeztu zaiolako egindako lana. Ipuin kontalaritzak, askotan, inprobisaziotik edaten du, publikoaren arabera tonua eta kontatzeko modua aldatzen baita.

106. Bardoaren irudia, hunkigarria (BAZ-028/020)

Askotan Amaiak eta Iratik bardotzat aurkezten dute euren burua, eta oso hunkigarria da bardoaren papera Amaiaentzat.

107. Helduentzat ipuin kontalaritza, erronka (BAZ-028/021)

Haur literaturan material mordoa dago, eta askotan baliatzen dute hau euren ipuinak prestatzeko. Helduen literatura prestatzea gehiago kostatzen zaie.

108. Beti ipuinen egitura bera erabili behar (BAZ-028/023)

Ipuinen egitura errespetatzea beharrezkoa da Amaiaentzat gaur egun, izan ere, ibili diren eskola batzuetan euskara maila baxuarekin egin dute topo, eta umeek ipuina jarrai dezaten betiko egitura erabiltzen dute.

109. Nola sortu ipuin bat? (BAZ-028/025)

DBHko umeen adina oso egokia da literatura lantzeko. Ipuin bat idazteko orduan, garrantzitsua da gai bat ematea. Ondoren, narratzailea/pertsonaia erabaki behar da. Bizitza eman behar zaie pertsonaiei, ezaugarriak eta izaera eman. Azkenik, istorioa kontatuko den espazioa zehaztu behar da. Pertsonaiak garapen bat izan beharko luke istorioaren hasieratik bukaerara. Idazten jakiteko funtsezkoa da irakurtzea.

110. Ipuinak euren artean jostea gustuko (BAZ-028/027)

Ipuin baten sorkuntzan, askotan amaiera sorpresazkoa izaten saiatzen gara, baina istorioa ona egiten duena ez da amaiera, garapena baizik. Ahozkoan eta idatzizkoan oso desberdina izan daiteke ipuin bat, batzuk irakurtzekoak direlako eta ez ahoz kontatzekoak. Kontaketan hasiera ondo ulertzea garrantzitsua da.

111. Ahoz kontatzeko ipuinak sortzen (BAZ-028/029)

Ipuin mota zehaztu behar da lehenengo, eta horren arabera, kontaketan erabiliko den tonua. Pertsonaiei batzuetan keinuak jartzen dizkie, eta ahots berezia, baina ez beti. Isiluneekin jolastea, intriga sortzea. Isiltasunak askotan bizitza handia ematen dio kontaketari. Ipuinaren elementu aldaezinak zehaztu, eta gainontzekoa aldakor bilakatzen du Amaiak. Entzulearen arabera gaia aukeratzen du, sentiarazi nahi duenaren arabera.

112. Ezin publiko guztiak bereganatu (BAZ-028/031)

Ipuin kontalaritzan hasi zenean, oso urduri jartzen zen hasieran. Esperientziarekin, profilak zehaztu eta publikoa ondo ezagutzen jakin du, ondoren diskursoa moldatzeko. Askotan adin ezberdineko publikoa dago, eta denengana iristen oso zaila da. Iratik gitarra jotzeak umeak lasaitzen laguntzen dituela konturatu da Amaia.

113. Liburu bat ukitu ez duten haurrak (BAZ-028/033)

Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian batez ere liburutegiz liburutegi aritzen dira Amaia eta Irati. Nafarroan askoz ere baliabide gutxiago dituzte kontalariak ekartzeko. Liburu bat ukitu ez duten haurrekin egin dute topo.

114. Ipuin-kontalariaren lanari buruzkoak (BAZ-028/035)

Askotan ipuin-kontalaritza umeen kontua dela pentsatzen da. Publikoa geroz eta gazteagoa dela konturatu dira Amaia eta Irati. Irakurzaletasuna sustatu behar da.

115. Musikak erakargarriagoak egiten al ditu ipuinak? (BAZ-028/037)

Ipuinak musikatuak egiteak erakargarriagoa egiten du ipuin kontaketa entzulearentzat. Batzuek lehen aldiz entzuten dute instrumentu bat zuzenean, gainera, ipuinari efektu berezi bat ematen dio, girotu egiten du. Abestiak ipuinaren testuinguruan sortzen dituzte, zentzua izan dezaten.

116. Ahozkotasuna landu beharra (BAZ-028/039)

Ahizpak Texasen ikasi zuen, eta ahozkotasuna asko lantzen zuten. Ikasleei ahozkotasuna irakatsi behar zaie, aurkezpenez haratago, paperetik atera behar dira ikasleak Amaiaren iritiz. Komunikazioaren alderdi asko galtzen ari dira gaur egun.

117. Ipuinak hasteko eta amaitzeko esamoldeak (BAZ-028/041)

Ipuin kontaketa esamolde jakin batzuk erabiltzen dira, ezagunenak ipuina hasteko edo amaitzeko. Amaiak Usurbilgo kontalari baten formulak darabilzki, saioz saio hasiera ezberdinak erabiltzea gustatzen zaio, beti berdinak ez erabiltzeko. Bestetik, formula horiek tradiziozko formulak dira, eta horiek ez transmititzeak zalantzak sortzen dizkio Amaiari. Umeek, gainera, esamolde horiek identifikatuta dituzte, eta horiek gabe, batzuetan, ez dute ipuina ulertzen.

118. Gorputz-hizkuntza eta onomatopeiak (BAZ-028/043)

Ipuin kontalariaren arabera asko aldatzen da kontaketa, esamoldeez gain, keinuak, begirada, tonua, ahotsa jokoan sartzen baitira. Onomatopeiaz josirik dago euskara, eta horiekin jolastea maite du Amaiak.

119. Ikusleak kontalariarekin batera bidaiatzea (BAZ-028/045)

Isiltasunaren garrantzia kontaketa. Publikoaren arabera tonua aukeratzen du Amaiak, pausak egiten ditu kontaketa ikuslea harrapatzeko.

120. Ipuin-kontalariak ipuina sentitu behar du (BAZ-028/047)

Ipuin kontalariak sentitu eta bizi egin behar du ipuinean kontatzen dena, ikusleari gauza beratrasmittu ahal izateko. Askotan hunkitu da Amaia ipuina kontatzen ari zela, batez ere helduekin.

121. Arnasaren garrantzia ipuin-kontaktetan (BAZ-028/049)

Amaiak arnasketa ondo kontrolatzen badu ere, badira kontaktak non ehun ume biltzen diren, eta ez duen mikrofonorik. Kasu horietan igartzen du Amaiak ahotsa bortxatu egiten duela, eta abestietan ez zaiola tonu egokia ateratzen.

122. Urduritasuna galtzeko giltza (BAZ-028/051)

Ipuin-kontaketa onak egiteko, lasai egotea oso garrantzitsua da. Amaia hasiera batean oso urduri egoten zen, baina bere burua ipuinean sartzen den unean, urduritasuna joan egiten da.

123. Ameli izen artistikoa, nondik? (BAZ-028/053)

"Ameli eta xirrikituena jostuna" da Amaia eta Iratiren izen artistikoa. Eskoriatzan bizi zela, bertso eskolak ematen zizkion gizon bati otu zitzaion 'Ameli' izena, 'Amaia' eta 'Eli' (Elizagoien) batuz. Xirrikituak, ordea, 'xirri' eta 'kitu' hitzekin egindako jokoa.

124. Almandozen Urteberri egunean abesten zen kanta (BAZ-030/001)

Almandozen Urteberri egunean kantatzen zen kanta: "Urteberri berri, zer dakarazu berri? Uraren gaiñan bakia ta osasuna...".

125. Ixaren aurkezpena (BAZ-032/001)

Ixa beratarra da eta etxean ikasi zuen euskara. Ama euskalduna zen, Berako baserri batekoa, eta aita erdalduna. Halere, etxean beti euskaraz aritzen ziren.

126. 70eko hamarkadan, Bera erdalduna (BAZ-032/002)

70eko hamarkadan, Bera hagitz erdalduna zen. Haur gehienak mojen eskolarat joaten ziren.

127. Euskara ezjakin eta baserritarrena (BAZ-032/003)

Baserritarrek euskaraz jakin arren, ez zuten beraien seme-alabek euskaraz aritzea nahi izaten; erdaraz ongi ikastea nahi zuten. Kultura guzia erdaratik heldu zen, beraz, euskaraz egiten zuena ezjakintasun eta baserri-munduarekin lotzen zen.

128. Euskararen aldeko mugimenduko taldea (BAZ-032/004)

Ixak 20 urte zituelarik, euskararen aldeko taldetxo bat elkartzen hasi ziren. Barojaren omenaldia antolatu zuten, baita ikastolaren proiektua lantzen hasi ere.

129. Barojaren omenaldia (BAZ-032/005)

Barojaren omenaldirako, Josu Goiaren etxean elkartzen hasi ziren; barojatarrek ere aunitz lagundu zuten. Arte erakusketa bat antolatu zuten, kontzertuak, Euskal Herriko dantza taldeak joan ziren, hitzaldiak izan ziren... Iraultza ttiki bat izan zen.

130. "La leyenda de Jaun de Altzate" euskaraz (BAZ-032/006)

Omenaldian, antzerki talde batek "La leyenda de Jaun de Altzate" euskaraz antzeztu zuen.

131. Omenaldia, inflexio puntu (BAZ-032/007)

Omenaldia inflexio puntu gisakoa izan zen.

132. Ikastolaren sorrera (BAZ-032/008)

Omenaldiaren ondotik, ikastolaren ideia lantzen hasi ziren. Horretarako, lesakarrekin elkartu ziren; normalean Josu Goiaren etxean biltzen ziren. Taldean nor ziren aipatzen du txak. San Fermin ikastolakoekin ere paratu ziren harremanetan.

133. Ikastolaren aldeko hitzaldia (BAZ-032/009)

Ikastolaren proiektuaren alde, hitzaldi bat antolatu zuten. Garaikoetxeak eta San Fermin ikastolako zuzendari Atxak eman zuten hitzaldia. Horrat, gurasoak gonbidatu zituzten. Iruñeko poliziak agertu ziren mintzaldian; halere, ez zen deus gertatu.

134. Gurasoak konbentzitzen (BAZ-032/010)

Ikastolaren proiektuan, lehenbiziko lana gurasoekin lanketa egitea izan zen: haiek konbentzitzeko etxex etxe joan ziren.

135. Lehenbiziko irakaslea eta egoitza (BAZ-032/011)

Irakaslea harrapatzeko prozesua zaila izan zen, ez baitzegoen irakasle euskaldunik. Berruetako Pili Gartxitorena izan zen lehenbizikoa. Gurasoak kontent ziren berarekin, eta hori garrantzitsua izan zen. Elizak ere proiektuaren alde egin zuen, eta beraien bidez, eskola zaharra zenaren egoitza lortu eta auzolanean moldatu zuten lekua. Ondotik, Elizak Lagun Etxea izeneko etxean solairu bat utzi zion ikastolari, eskolak han emateko.

136. Ikastolaren finantzazioa (BAZ-032/012)

Ikastola finantzatzeko, Diputazioko diru-laguntzaz gain, ostatua antolatzen zuten herriko bestetan.

137. Bortzirietako ikastolen arteko harremana (BAZ-032/013)

Bera eta Lesakako ikastolak elkarrekin hasi ziren, eta harreman handia zuten. Gero, Etxalar, Igantzi eta Arantzako ikastolak sortu zirelarik, Bortzirietako ikastoletako irakasleak elkartu eta programazioa elkarrekin egiten zuten.

138. Ikastolako materiala (BAZ-032/014)

Pedagogikoki hagitz ezberdina zen ikastola. Aranibar ahizpek Irungo ikastolan egiten zutenek lan, handik ekartzen zuten materiala. Garai hartan ez zegoen euskarazko testulibururik eta dena itzuli behar izaten zuten.

139. Hainbat jarduera ikastolan (BAZ-032/015)

Gurasoak kontent ziren ikastolarekin. Hainbat jarduera egiten zituzten: kanpaldietara joan, mendira, udalekuetara... Eskola tradizionalak ez zuen halakorik egiten.

140. Ikastolaren legalizazioa (BAZ-032/016)

Ikastolaren legalizazioa ekonomikoki aunitz nabaritu zen. Horren aitzinetik, urtero joan behar izaten ziren diputaziora dirua eskatzera. Legalizazioa baino lehen, ikastolako ikasleak San Fermin ikastolako ikasle bezala matrikulatzen ziren.

141. Ixaren lana ikastolan (BAZ-032/017)

Ixa ikastolako juntan egon zen urte luzez, lehendakari izan zen eta kontuak ere eramaten zituen.

142. 1983ko Nafarroa Oinez (BAZ-032/018)

1983ko Nafarroa Oinez Ixa antolakuntzan aritu zen. Ekonomikoki bulkada handia eman zion ikastolari besta hark.

143. Auzolana (BAZ-032/019)

Beti izaten zituzten zailtasunak ikastolan, baina auzolanean moldatzen zituzten. Adibidez, egoitza zaharrak lortzen zituzten beti, eta auzolanean moldatzen zuten dena.

144. Herriko giroa euskaldunagoa (BAZ-032/020)

Ikastolako haurrak euskaraz aritzen ziren kalean, eta horrek giroa euskaldundu zuen. Horri Frankoren heriotza eta euskararen alde sumatzen zen giroa gehitu

145. D eredua eskola publikoan (BAZ-032/021)

Eskola publikoak D eredua txertatu zuen, hein batean, ikastolak izan zuen arrakastagatik eta herriaren presioagatik.

146. Gau-eskolak (BAZ-032/022)

Ikastolaren bueltan aritzen zirenak, hurrez gain, gurasoek ere euskaraz ikastea komeni zela pentsatu zuten. Hala, herriko etxean hasi ziren gau eskolak ematen. Bertan, Ixa aritu zen irakasle, nahiz eta bera euskara-irakasle ez izan eta alfabetatua ez egon.

147. Alfabetatu gabeko irakasleak gau eskoletan (BAZ-032/024)

Hasieran, gau eskoletan aritzen ziren irakasle batzuk ez zeuden alfabetatuak. Aranibar ahizpak, aldiz, horiek bai, irakasleak ziren eta alfabetatuak ziren.

148. Gau-eskolei buruz (BAZ-032/025)

Gau-eskoletako ikasleak gurasoak eta gazteak izaten ziren. Liburu bat zegoen euskara ikasteko, bakarra: "Euskara, hire laguna". Kantak ere erabiltzen zituzten. Polizia sekreta bat joaten zen gau eskoletara. Gau eskolek harrera ona izan zuten: 3-4 klase zituzten eta 15 bat ikasle.

149. Gure Txokoako ipuin lehiaketa (BAZ-032/028)

Garai hartan, Gure Txokoak euskarazko ipuin lehiaketa antolatzen zuen urtero haurrentzat.

150. Udalaren laguntza ikastolari (BAZ-032/029)

Udalak ere ikastola lagundu zuen; Altzateko lokalaren zesia egin zion.

151. Euskararen aldeko mugimendua (BAZ-032/030)

Euskararen aldeko mugimendua ikastolaren bueltan aritzen zirenek osatzen zuten. Garai hartan Bera herri hagitz erdalduna zen; segur aski, muga egoteak bazuen eragina.

152. Militantzia (BAZ-032/031)

Garai haietako oroitzapen ona du Ixak; intentsitate handiarekin bizi zuten egiten zutena, militantzia zen.

153. Balorazioa (BAZ-032/032)

Egindako lanaren balorazioa egiten du Ixak.

154. Euskarazko kontzertuak (BAZ-032/035)

Kontzertu euskaldunak antolatzen zituzten, eta garai hartan, gauza berria zen hori. Antolatu zuten lehenbiziko kontzertua, herriko etxeko plazan izan zen, eta Nestor Basterretxearengana joan ziren kartela egiteko eskatzera. Hark kartela debalde egin zien.

155. Aldaketa (BAZ-032/036)

Gauzak aldatu egin dira

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-08-23

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com